

1994ko otsailak 4

222. zenb.

PRESS

ARRASATE

SUKAL DE ETA BAINU ALTZARIAK

Tfnoa: 79 00 43

Tfnoa: 79 00 49



Erreportaia
IGPak barrutik

Aterik ate

IRLANDA

INGELES IKASTAROAK

Zergatik Irlanda?

- * HEZKUNTZA MAILA BIKAINA
- * PERTSONA ATSEGIN ETA JATORRAK
- * FAMILIAKO BALORE SENDOAK
- * INGURUNE SEGURU ETA OSASUNGARRIA



Parlace

INFORMAZIOA:
Ferrerias, 11, behea
Tfnoa: 77 06 83

As-ka-ta-su-na!!

As-ka-ta-su-na!!

Askatasuna da Izadia bere eboluzioaren puntan sortzen ari den doai berria, Gizadia bere eboluzioan lortzen ari den aberasgarritasuna. Abe-reak ez du askatasunik. Naturaren arrisku eta zailtasunak gainditzen saiatzen da. Eta tira-bira horretan, trebetasuna eta indarra dira nagusi. Abere basatia oso askea dela iruditzen bazaigu ere, ez du berezko askatasunik, irabazia baizik; naturaren gogorkeria gainditzen duen eran eta beste abereak menperatzen dituen araberan bakarrik da askea. Ikuspegi honetatik, "krudela" da benetan natura. Bizidunen biziak beste askoren heriotza du zerga. Honetan datza Naturaren oreka: inguruari egokitzean eta besteak nagusitzean. Trebeak aurrera, argalak zulara.

Giza eboluzioak ekarri ditu eskubideak. Aintzinako gizakiak abere antza haundia zuen bere jarrera eta jokabideetan. Poliki-poliki kontzientzia ere hartu zuen, eta, poliki-poliki, abereen jarrerak aldatzen joan da, giza-duintasunaz aberasten. Giza eboluzioa hasi besterik ez da egin. Oihanaren arauak dira oraindik nagusi, beharbada sofistikatuagoak baina oihanaren arauak: inguruari egokitzea, indarra eta azkartasuna.

Giza kontzientzia, giza duintasuna, giza-bakoitzaren nortasun eta balioa, herri bakoitzaren nortasun eta balioa, guzti horien arabera eraturako herritarren eta herri arteko



harremanak eta abar, urrun daude: eboluzioaren helburu eta gure retoa dira.

Naturaren arauak errespetatzen ez badira, Natura-oreka zaintzen ez bada, Natura gure aurka jartzen da. Ikus kutsadura, ozono zuloa, giro aldaketak, eta abar eta abar.

Giza arauak estatuen artean, nazioa barruan, herrietan, erakundeetan eta abar, gordetzen ez badira berdin; hara hor gudad, iraultzak, desberdintasun eutsiezinak, karaxia, negarra eta heriotza.

Ez in da Gizadia desorekatu ondorio galgarriak jasan gabe, desagertzera garamazki. Gizadiak, bera ere natura denez, oreka eskatzen du.

Berdin pertsonak, Natura txikia denez, bere baitan dituen fakultateak orekaz eta duintasunez erabili behar ditu. Erabakiorra denez, egin dezake gogora datorkiona, baina ez bere eta besteen burua izoratu gabe.

Ez gara Jainkoak "kapritxoz" gura duguna egiteko. Naturak bere arauak inposatzen dizkigu. Eboluzioa abortatu nahi badugu behintzat, oihanaren arauak alde batera utzi eta giza arauak ikasi, geureganatu eta bizi behar ditugu.

Zer edo nor da gizona? Nondik datorkio gizakiari askatasunaren barne deia eta karaxia? Eboluzioaren erakarpenetik. Jainko-gandik. Jainkoaren irudira eginak gara. Eta Jainkoa askatasuna da.

Ez dabil gaizki San Pablo Galaziatarrei egindako eskutitzean: "Senideok, ene senideok, askatasunera deituak izan zarete; baina ez bekizue izan askatasun hori norbere-koikeriarako; baizik eta maitasunez izan zaitzte elkarren morroi". "Ibil zaitzte Espirituari dagokionez, eta ez dituzue beteko 'hargiaren' irrisak".

"Askatasunean bizitzeko askatu gaitu Kristok; iraun ezazue, beraz, sendo, eta ez sartu berriro morrontz uztapean". Cap. 5.

JOSE MARI ASTIGARRAGA, 'SAGARRAGA'

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Inguurujiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Lareta, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubizarra, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oriati).



ARRASATE PRESek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Valles

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE



**Alkoholarekin arazoak
daukazu?**

**Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**


**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

••••
Jon Iñaki Lasari

A Jon Iñaki Lasa ARRASATE PRESSEKO eta ATBko kolaboratzailea bere iritziak izateko eta azaltzeko askatasun osoa duen arren, azken hilabete hauetan idatz-esan dituen hainbat gauza direla eta, batez ere, 1994ko urtarrilaren 21eko ARRASATE PRESSEN, azaldu duen jarrera erasokor eta arina dela medio, ezagunarteko komentarioetatik gutun hau idaztera animatu naiz.

Ugariak eta jarrera ideologiko-politiko ezberdinekoak, gainera, dira urteotan ARRASATE PRESSEN eta ATBn iritzia eman dutenak. Kolaboratzaile hauen inguruan zerbait azpimarratu beharko banu, guztiok azaldu duten errespetozko jarrera aipatuko nuke. Hau honela izateko bi arrazoi nagusi ikusten ditut: euskarak batu egiten gaituela eta edozein eztabaida, gordinena ere bai, euskaraz tentsio txikiagoan ematen dela batetik, eta bestetik, arrasatearrok ulertu egin dugula ATB eta ARRASATE PRESSEN zeregina eta izpiritua: arrasatearren informazio egarria euskaraz asetzea eta herritarron arteko elementu integratzailea izatea. Kolaboratzaile ezberdinak —eta tendentzia guztietako politikoak ere bai— jabetu dira horretaz eta kontsekuentzian aritzen dira.

Jon Iñakiren partehartzea, ordea, oso bestelakoa da. Jon Iñakik jarrera deskalifikatzailea du. Irakurri eza-

zu urtarrilaren 21eko 3. orria eta zu zeu ere ohartuko zarenez, Jon Iñakik deskalifikazio pertsonal eta kolektibo merkeak egiten ditu eta gai sakonen inguruan egiten dituen kritikak arinak dira. Jarrera honekin ez die inolako mesederik egiten aurrez aipaturiko bi komunikabideei eta herri mailan bazterrak nahastea besterik ez du lortzen.

Jarrera erasokor eta deskalifikatzaile hau izateko zein interes klase du Jon Iñakik? Interes berezirik ez baldin badauka, Arrasateko Errepublika Independentea (berari esatea hainbeste gusatzzen zaion bezala) ezagutzen ez duela eta despistatuta dabilela pentsatuko nuke. Izan ere, azken urte mami-tsu hauek bere herritik kanpo eman ondoren, ez litzateke hain harrigarria izango.

EUGENIO ITURRIOTZ

••••
Mila esker

A Arrasateko Amnistia-aren Aldeko Batzordeak eskerrak eman nahi ditu bai ekonomikoki edota materialki Gabonetako kanpian laguntza eskaini duen jendeari, hauek posible egin baitute Arrasateko herriaren elkartasuna, hain bereziak diren egun hauetan, espetxetara heltzea. Mila esker.

**ARRASATEKO AMNISTIAREN
ALDEKO BATZORDEA**

Zuzenketa

Aitor Arriaranen hitzak aldatuta atera ziztzaizkigun joan den aste-ko gomendioan: "Ihauteri eguna kolore askoko eguna dela, giro politekoa" esan zuen, eta "giro politiko" agertzen aldizkarian. Letra bat zenbat alda dezakeen... Gaizki esanak barkatu.

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

Ibili zara aurtengo merkealdietan?



**Paqui Gonzalez
Etxekoandrea (38 urte)**

Ez. Txarto harrapatu naut; ez diru aldetik, beste gauza batzuegatik, baina ezin izan naiz joan.




**Manuel Hernandez
Langabezian (25 urte)**

Bai, zerbait erosi dut. Noiz erosiko dugu ba, bestela? Merkeago dagoenean erosi behar da.



**Rosa Maria Zabalo
Langabezian (33 urte)**

Ez naiz joan, ez. Agian orain otsailean, gehiago errebajatzan badute, baina oraindik ez.



**Gregorio Beitia
Copreciko langilea
(53 urte)**

Ez daukat ohiturarik, bapez. Ipintzen dittuenak irabazten urtetan dauenien, ez dakit nik ba...



**Milagros Arriaran
Etxekoandrea (59 urte)**

Bai, eta erosi be bai. Betik ez da ona egoten, baiña lerdik ikusi erropie eta gero fan bai. Lelengo begiratu, klaro, eta zein dendatan dan be bai.



**Santiago Garcia
Fagorreko langilea
(57 urte)**

Ez naiz joan. Ni dendetara sartu ere ez. Andrearekin noan bakoitzean haserretu egiten gara.



**Ana Mari Arruabarrena
Coprecik langilea
(57 urte)**

Bai. Zeozer erosi dot. Arrasaten ez, Iruñan erosi neben, koinzididu ein jaten haraxe juatie.



**Jose Manuel Azpiri
Langabezian (27 urte)**

Bai, lehengoan praka batzuk erosi nituen. Ez naiz asko joaten, zerbait falta zaidanean, bestela ez dut erosten.



taldelan

Apainketa - Diseinua
PROIEKTUAK / BERRIKUNTZAK
Obrak zuzendu

Erguin kalea, 12
Tfnoa: 77 05 97

ARRASATE
Faxa: 79 02 13



José Angel Iborra

Tfno mugikorra: 908-77 08 56

Arrasate Pasealekua, 12 Bis
Tfnoak: 79 34 23 / 79 98 94

Telemezua-doaneko deia:
900595959 - Bazkide Znk: 400438

4 OSTIRALA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualaria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazki 45 87 44

Udaitzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitate (Iberduero) 12 01 62
 Gas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 4
 Egunez eta gauzez: Mozos, Pedro Deunaren.
 Egunez 22.00ak arte: Inzár, Erguin.

Larunbata 5
 Egunez eta gauzez: Camacho, Oxirondo.
 Egunez 22.00ak arte: Ameza, Santamarina.

Igandea 6
 Egunez eta gauzez: Camacho, Oxirondo.
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz, Magdalena.

Astelehena 7
 Egunez eta gauzez: Puy, Barrenkale.
 Egunez 22.00ak arte: Morales, San Andres.

Asteartea 8
 Egunez eta gauzez: Guallar, San Antonio.
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga, Ferrerías.

Asteazkena 9
 Egunez eta gauzez: Estella, Mابخiategi.
 Egunez 22.00ak arte: Español, Iturriotz, 17.

Osteguna 10
 Egunez eta gauzez: Mozos, Pedro Deunaren.
 Egunez 22.00ak arte: Corcuera, Musakola.

5 LARUNBATA

ZINEA
 "El Retorno de las Brujas". 5etan.
 "La Madre Muerta". 7.30etan eta 10etan.

AEDko LUDOTEKA IBILTARIA
 Musakolako alkatetzan, Maixu Aranbarri Plazan. Goizeko 10.30etatik ordu bata t'erdietara. OHOKo 1. mailatik 8. mailara arteko umeentzat.

INAUGURAZIOA
 "Corazón de Encina" kultur elkar-
 tearen egoitzaren inaugura-
 zio ofiziala. Goizeko 11.30etan suziri jaurtiketa, 12etan meza extremeñoa, 1.30etan luntxa bazkide guztientzat. Arratsaldeko 5etan txokolatada haurrentzat. 6etan agintari eta gonbidatuei harrera, elkarteko talde rumberoaren ekitaldia, "Cuadro Flamencoaren" ekitaldia, Jose Hilario Fuentesen poesia errezitaldia eta folklorea "Corazón de Encina" taldearen eskutik. Gaueko 9.30etan agintari eta gonbidatuentzako afaria. 12etatik aurrera dantzaldia.

GESALIBARKO JAIK
 Goizeko 11etan haurrentzat jaialdia, 11etatik ordu bata arte marrazki erakusketa. Egurdiko 12etan meza Garagarzako koroak abesturik. Egurdiko 2.30etatik iluntzearte auzoko abesbatza kantuan ibiliko da. Gaueko 11.30etatik aurrera dantzaldia Maixa, Itziar eta Garbiñe-
 rekin.

AURRESKU DANTZA
 Aretxabaletako kintoek aurre-
 skua dantzatuko dute arratsaldeko 7etan, herriko plazan.

KONTZERTUA
 Gasteizko lau talde. Gaueko 9etan, gaztetxean. Dohainik.

KORUA
 "Alaia" abesbatzaren kontzertua.
 Arratsaldeko 4.30etan, Aita Menni ospitaleko ekintza aretoan.

ZINEA
 "El Beneficio de la Duda". 7etan eta 10etan.

GESALIBARKO JAIK
 Arratsaldeko 6etan kanpai jotea eta etxaflero jaurtiketa. 9etan afari herrikoia. Ondoren bertsolariak: Enbeita eta Sorozabal.

PROIEKTUEN AURKEZPENA
 Proiektuak: San Juan Bataitzailearen Elizaren Berriztapena eta Jasokundeko Amaren Lekaimeen lurzoruetan egin asmo den Eliz Gune Berriaren Eraikina. Aurkezleak: On Jose Maria Setien eta On Jose Maria Astigarraga. Arratsaldeko 7.30etan San Viator Ikastolako Ekitaldi Aretoran.

ANTZERKIA
 "Tropa Txaplin Tropela". Hika antzerki taldea. Gaueko 10etan. Elorriko Arriola Kultur Aretoran.

KONTZERTUA
 "Orgasmic Toothpicks" Hondarribitarak. Gaueko 9etan, gaztetxean. Dohainik.



SANTA AGEDA EGUNA

Ostiralean Santa Agedako koruak kantari ibiliko dira. Aurtan, orain dela gutxi hil den Juanito Egidazu "Kurri"ren omenez abestuko dute. Juanitok aurtan 50 urte beteko zituenean Santa Ageda koruan kantari hasi zenetik.

6 IGANDEA

ZINEA
 "El Retorno de las Brujas". 5etan.
 "La Madre Muerta". 7.30etan eta 10etan.

MENDI IRTEERA
 Aretxabaletako Murruxiko Mendizale Elkarteak antolatuta. Valderejora, egun guztirako. Irteera, goizeko 8.30etan Aretxabaletako partenoitik.

GESALIBARKO JAIK
 Goizeko 12etan Gesalibar auzoan meza nagusia. Ostean, salda eta pintxoak denentzat.

INAUGURAZIOA
 Aretxabaletako Apotza-Etxebarriko Sailuente ermitaren inaugurazioa. Egurdiko 12etan. Txistulariak, dantzariak eta Aretxabaletako abesbatza izango dira.

AURRESKU DANTZA
 Aretxabaletako kintoek aurre-
 skua dantzatuko dute arratsaldeko 7etan, herriko plazan.

CORAZON DE ENCINA EGOITZAREN INAUGURAZIOA

Larunbatean inauguratuko da. Egun guztian zehar ekintzak izango dira.



7 ASTELEHENA**ZINEA**

"La Madre Muerta". 7etan eta 9.30etan.

**OÑATIKO OSTALARITZA
ESKOLAKO IKASTAROK**

Ikastaro hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sailak babesten ditu. Bata kudeaketa eta zerbitzuei buruzkoa da eta gai hauek irakatsiko dira: ostalaritza-merkataldegi kudeaketa, giza harremanak eta protokoloa eta bileren antolaketak. Bestea sukaldaritzari buruzkoa; irakatsiko diren gaiak: ehiza, hutsen prestaturiko jakiak, gozogintza berezituak, elikapena eta dietetika, garaiko produktuak eta izozkigintza. Informazio gehiago nahi baduzu, dei egin 716190 telefonora

**GESALIBARKO JAI**

Larunbatean, gaueko 11.30etatik aurrera Maixe, Itziar eta Garbiñek alaitutako dantzaldia izango da.

8 ASTEARTEA**ZINEA**

"La Madre Muerta". 7etan eta 9.30etan.

HITZALDIA

Gaia: Armamentismoa: fabrikazioa eta armen merkataritza. Monterronen arratsaldeko 7.30etan. Komite Internazionalistak antolatuta.

**MALTZAGA-URBINA
JARDUNALDIAK**

Gaia: Maltzaga-Urbina ardatza. Arrasateko udaletxean. "Deba Bailara Bizi Bizirik" plataformak antolatuta.

LEXIKO BILKETA

"Lexiko Berezien Bilketa" proiektuaren aurkezpena Bergara. Udalaren laguntzaz Unek antolatuta. Helburua: mendeetan gauzatutako hitzak, esakerak, metaforak... jasotzea. Gaiak: zerragintza, arotzeria, ebanisteria, linoa, ehungintza, ikaskintza, burdin-lanak, artzantza eta errotaritza. Arratsaldeko 7.30etan Bergarako UNE-Den. Aurkezleak: Victoriano Gallastegi, Miren Azkarate eta Juan Martin Elempuru.

9 ASTEAZKENA**HITZALDIA**

Gaia: tranxesualitatea. Hizlariak: Jenny Madrileko tranxesualen taldekoa, Mertxe Andaluziako identitate zentrukoa eta Cristina Garaizabal, Madrileko mugimendu feministakoa. Monterronen arratsaldeko 7etan.

**MALTZAGA-URBINA
JARDUNALDIAK**

Gaia: Maltzaga-Urbina ardatza. Bergarako UNE-Deko areto nagusian. "Deba Bailara Bizi Bizirik" plataformak antolatuta.

**I ANTIMILITARISTA
JARDUNALDIAK**

Hitzaldia: Emakumea eta antimilitarismoa. 7.30etan, Elorrioko Arriola Kultur Aretoan.

ERAKUSKETAREN BUKAERA

Beni Uzkianoren eskulanak ikusteko azken eguna. Monterron Kultur Etxean. Arratsaldeko 6etatik 8etara.

**ETXEKO ABERIA TXIKIEN
KONPONKETA
IKASTAROA**

AEDko Ekin emakume taldeak antolaturiko ikastaroa. Emalea: Angel Inda. AEDko lokaletan. Asteartero. Otsailaren 8tik apirila bitartean. Informazio gehiago nahi baduzu dei egin 795446 telefonora.

10 OSTEGUNA**OSTEGUN GIZEN****MALTZAGA-URBINA
JARDUNALDIAK**

Gaia: Maltzaga-Urbina ardatza. Bergarako UNE-Deko areto nagusian. "Deba Bailara Bizi Bizirik" plataformak antolatuta.

BINGOA ETA MERIENDA

Aita Meni hospitaleko kultura gelan, arratsaldeko 5etan.

**EGONALDIAK FAMILIA
EUSKALDUNETAN**

Eusko Jauraritzako kultura sailak, euskara hobetu nahi duten ikasleak hartu nahi dituzten familientzako, laguntza deia egin du. Plangintza uztaitetik irailera bitartean gauzatu da. Baldintzak: % 75etik gorako euskaldun biztanlegoa duten udalerrietako batean bizi izatea, gutxienez hiru kidek osotua izatea, kideen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izatea... Inskripzio-fitxak eta gainontzeko dokumentazioa jasotzeko azken eguna martxoaren 18an bukatuko da. Informazio gehiago nahi baduzu, jo udaleko euskara zerbitzura.

**ARTE EDERRETAKO
IKASLEEN ERAKUSKETA**

Pintura, grabatu, eskultura eta argazkien erakusketa. Otsailaren 4tik 19ra. Harresi Aretoan. Ordutegia: egunero arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, goizez 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

“Kooperatibak, klaseak gainditzeko helburuarekin sortu dira, gure gizartean bizi diren gizon eta emakumeen beharren arabera aberastasunak banatzeko. Horren ondorioz, bere iharduerak besteekiko konprometua dakar beti. Edo gutxienez horrela proiektatu zuen MCCko kooperatibismo egiazkoa bere sortzaileak, On Jose Maria Arizmendiarrietak, ‘enpresako egituren erreforma egiteaz hitz egiten zuenean”.

Jose Maria Ormaetxeak



“Pasaiko lantegia isteari buruz Fagorreko zuzendaritzak duen asmoa salatzekeo deitutako prentsaurrekoaz (...) ETBk hartu duen jarrera salatu nahi dugu, prentsaurrekoa grabatu arren, ez baitu emititu. Fagorren hatzapar luzeak komunikabide horretako albisteen zentsore izatera ere iristen direla pentsa arazten dugu”.

Pasaiaiko Fagor Luzuriagako Enpresa Komiteak **egin**

“Zergatik ez da Mondragon mundu mailan proiektatzen? Seguruena ez dituzte gure ezintasunak ezagutuko, egindako sendotzeko egin behar dugun bide latzaren berri ez dute izango, eta Arrasateko esperientzia ez dela kartara egindako soluziobidea. Duela gutxi bikote korear bat iritsi zen Arrasatera, japoniarra itzultako On Jose Maria Arizmendiarrietaren liburu bat galtzarbean hartuta, Arrasate langabeziarik gabeko oasis bat eta arazoentzat irtenbide osoak dituen lekua delakoan”.

Jesus Larrañagak



“Juan Carlos de Borbón, Espainiako Errege, Itoizko urtegia egitearen kontra dago, izan ere, bera da Adenako ohorezko lehendakaria. Iratiko bailaran ez dakite Estatu-buruak denborarekin batera aldatu egiten direla esan nahi duen edo, aurreko estatu-buruak ondo asko erakutsi zuen eta urtegiak inauguratzeko zaletasuna”.

Bego Zubiak 93-2-2


egin

Zer da AZPA erakundea eta zein helbururekin sinatuko duzue lankidetzahitzarmena?

AZPA (helduen heziketarako elkargoa) II. gerrate mundialaren ostean, langile eta langabetuen formakuntzaz arduratzeko Frantzian sortu zen erakundea da. Frantziako Lan Ministeritzaren barneko erakundea da eta erregio bakoitzak zuzendaritza bat du. Akitanian, adibidez, Burdeoseko kokatua dago, baina zentru desberdinak ere badituzte eta horietako bat Baionakoa da.

Deba Garaiko Mankomunitatea jadanik 1991an hasi zen erakunde honekin harremanetan. Orduetik, harremanak aurrera jarraitu du.

Jakingo duzuen bezela, joan zen urtean Deba Garaiko Mankomunitateak zerbitzu berria eratu zuen: garapen ekonomikorako eskualde agentzia. Agentzia horren zereginak asko dira eta hauetariko bat formakuntza bultzatzea da. Baina konturatu gara, formakuntza hau emateaz arduratzen diren irakasleen prestaketa ez dela nahikoa. Beraz, eta irakasle hauen formakuntza lortzeko, Euskadi-Akitania hitzarmenaren barne, irakasleen prestaketan aurreratu dagoen AZPA erakundeaz programa sinatu dugu. Programaren barruan ekintza desberdinak daude. Besteak beste, hemengo irakasle bat Akitaniara joango da iturgintza, berotze teknikak eta AZPAko irakasle titularren prozesu pedagogikoa ikastera. Gainera, beste bi edo hiru monitorea Baionako jardunaldietan parte hartuko dute. Azken finean, guk eskeintzen dugun irakaskuntzaren kalitatea eta irakaslegoaren prestakuntza hobetzeko modua da.



Koldo Azkoitia
Garapen Ekonomikorako
Eskualde Agentziaren
Arduraduna

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**
**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**
Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

EsLu
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO
ANGELA UNZUETA
Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA
Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA
MENDIA
Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak
Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59

Piketeak normaltasunez

Arrasate lanean aritu ziren bakarrak, Euskadiko Kutzako zerbitzu zentralerako parte bat eta banketxe bateko sukurtsal bat izan ziren, sindikatuen esanetan. Piketeak sukurtsal horretara joan ziren, eta mehatxupearan soilik aterako zituztela erantzun zieten barrukoek. Horren aurrean, piketeak ezer ez egitea erabaki zuen, eta bankukoak han geratu ziren lanean, baina bezerorik atxilotu gabe. Piketeek ez beste intzidenterik izan.



Greba eguna

Sindikatu guztiak urtarrilaren 27rako deitutako Greba orokorrak erabateko erantzuna jaso zuen Arrasaten eta Deba Garaiko eskualdean. Dena itxita egon zen Arrasaten, ez zen izan denda edo tabernarik zabalik, ikastetxeetan ere ez zen klaserik izan, eta industria guztia geldik egon zen, kooperatibak barne. Mondragon Korporazio Kooperatiboaren (MCC) prentsa-bulegoaren esanetan, aldiz, kooperatibetan % 70 ingurukoa izan zen lanuztea. Inguruko herrietan ere ia erabatekoa izan zen greba.

dira peoi-lanean, gizarte segurantzarik gabe, eta hileko 45.000 PTaren truke.

Etzetik ihesi

Etzetik ihes egin zuen Arrasateko gazte bat aurkitu zuen Iruñeko udaltzaingoak eta etxera itzularazi zuten. Sandra T.A., 16 urtekoa, familiarekin eztabaidatu

ondoren, ihesi joan zen etzetik. Iruñeko udaltzaingoak hango tren geltokian atzeman zuen joan den larunbatean.

Ileapaindegian lapurretan

J.L.G., 27 urteko gazte arrasatearra, bi aldiz atxilotu dute azken bi asteetan,

ileapaindegietan lapurretan egiteagatik. Lehen aldian, duela 15 bat egun, Zigarrolako ileapaindegi batean harrapatu zuten ustezko lapurra, leiho batetik sartu nahian zebilenean. Joan den astean, berriro atxilotu zuten, ileapaindegi batean 4.000 PTA ostutzeagatik. Atxilotuak antzerako delituengatik denuntziak zeuzkan lehendik.

Etxean urkatuta

Minerva G.M., 20 urteko neska arrasatearra, bere etxeko bainugelaren urkatuta azaldu zen joan den astearte gauean. Bere familiak ambulategira eroan zuen, baina hilda zegoen jada. Zigarrola auzoan bizi zen hildako neska.

JAIOZKAK

- Eider Usobiaga Isazelaia. Urtarrilaren 11an.
- Jone Altuna Garcia. 28an.

HILDAKOAK

- Eulogia Antonia Alberdi Mendiguren. Urtarrilaren 25ean. 84 urte.
- Jose Cenciaga Agiriano. 26an. 85 urte.
- Jacinto Perez Miguel. 29an. 84 urte.
- Dolores Lasa Argaya. 30ean. 76 urte.
- Joaquin Palacios Beldarrain. 31an. 81 urte.



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



EDURNE JIMENEZ *

Emakumea eta kirola: zerbait ari da aldatzen

Emakumearen bizitzak aldatuta nabarmena izan du azken urteotan; emakumeek gero eta gehiago parte hartzen dute gizarte-bizitzan; orain arte "gizonen eta gizonentzako gauzatat" hartzen ziren aktibitateak egiteko gauza garela erakutsi dugu.

Berdintasunaren bila egiten diren aurrerapen hauek, tabakoarekin, estresarekin, sedentarisismoarekin arazoak dituen biztanlegoaren barruan sartu dute emakumea ere.

Baina kirolaren aurrean dugun jarrera oraindik ez da aldatu. 1986an estatu espainiarrean lortutako datuen arabera, gizezkoen kirol iharduerak bikoiztu egiten zuen emakumezkoena, %46 eta %23 hurrenez hurren. 1992an Euskadiko 4.000 familiatan egindako inkesta baten ikusten denez, denbora librean egindako aktibitatea %22 da gizezkoetan eta %12 emakumezkoetan.

Antzinaroan, edozein ihardueratetik baztertu egiten

zuen legeak emakumea, baita kirolek ere. Erromatarren garaian eta Ertaroan emakumezkoek ez zekiten aktibitate fisikoa zer zen. Emakume kirolaria ez zen 1896ko Olinpiadetara arte agertu; antzinako siniskeriek esaten zuten, gainera, "benetako emakumeak" uko egin behar zion kirola egiteari.

Baina kirola egiteari buruzko jokaera aldatzen ari zaigu eta emakume naizen aldetik, emakume guztiak euren potentzial guztiak lortzera animatuko direla espero dut. Gizezkoen eskubide berberak ditugu; egia da ezberdinak garena: taila txikiagoa dugu, muskulo gutxiago, grasa gehiago, erresistentzia txikiagoa...; ez gara ez hobeak ez txarragoak, ezberdinak bakarrik.

Emakumeak hilekoarekin, haurdunaldian, bularra ematen ari denean eta menopausian aktibitate fisikoa gutxitu egin behar duela esan izan da. Hilekoaren inguruko

ekintza gehienak negatiboak izaten dira eta kontzeptu okerrretan oinarrituak; ez dirudi, ezohizko zerbait duen emakumearen kasuan salbu, hilekoaren garaian aktibitate fisikoa gutxitzea eskatzen duen ebidentziarik dagoenik.

Haurdunaldiak itxura denez ez dago aktibitate fisikoaren kontraindikaziorik, baina kontuz ibili beharra dago, amaren forma fisiko eta ohizko aktibitatearen arabera neurtua.

Menopausiak benetako arazoak sortzen dizkie emakume batzuei, aktibitate fisikoa gradualki gutxituaz joaten den sasoi baten, eta horrek dakarren pisu-gehitzearekin. Horregatik bakarrik bada ere, arrazoi ona da erregulartasunez ariketa-programa bat egiten hasi edo jarraitzeko. Ez da erraza menopausian ariketa egiten hasia, baina atsegingarria da; ezin ahaztu komenigarria dela errekonozimendua egin eta espezialista batekin programa eztabaidatzea.

Bizi guztian zehar ariketa fisikoa maiztasunez egiteak zahartzarorako osasuna eta forma fisikoa hobetu egiten dituela badakigun arren, horrek ez du pastila bat hartzearen pareko izan behar. Kirola ez da egin behar osasunari on egingo diolako bakarrik, bakarka zein taldeka gozatzeko aktibitate gisa hartu behar da.

* **KIROLDEGIKO MEDIKU ZERBITZUKOIA.**

USTEAK USTE

DESPOTISMO ILUSTRATUA

Maltzaga-Urbinaren inguruan askotxo ari gara entzuten, batez ere Interbentzio Gune Partehartzaileak direla eta. **Herritarren ahotsa entzun dadin sortutako ekimena omen da Guneena. Ederto: ez daukat ezer esatekorik, prozedura primerakoa iruditzen zait, eta ez dut zalantzan jartzen Gizarteaz-ekoen profesionaltasun eta neutraltasuna. Kezkatzen nauena beste zerbait da, administrazioaren diskurtso monokorde eta absolutista: ardatza egin egin behar dela, autopista izan behar dela, eta egin egingo dutela gainera (95eko maiatzean hasiko omen dira). Orduan, zertarako Guneen parafernalia? Disimulatzeo edo? Susmoa daukat, zer nahi esan Guneek, administrazioak bere arazoiei eutsiko diela: beharrezkoa dela, eta halakoa izango dela. Despotismo ilustratua da hori: dena herriarentzat, baina herririk gabe. Kasu honetan, "ilustrazioa" beharrean, teknizismoak dira arazoitzat hartzen direnak. Arrazoa dute, ez aginpidea dutelako, zifra hutsek erakusten dutelako. Autopista egin egin behar dela, egia tekniko-zientifikoa da, eta besterik pentsatzea ez zaigu zilegi. Teknokraten aurrean makurtu egin behar dugu, ezer ez dakigula aitortu behar dugu.**

LUIS FERNANDEZ

LODITASUNA, LIPOESKULTURA, LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

Janaridenda traspasoan.

Negoioa martxan dago baina atenditu ezinagatik utzi behar dugu.

2.000.000 PTA
Tfnoa: 76 52 80

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28





Gero eta jende gehiago joaten da Arrasatetik kanpora bizitzera.

Astean hamar bat lagunek emigratzen dute arrasatetik

Arrasatek 256 biztanle galdu ditu iazko urtarriletik aurtengo urtarrilera. Azken sei urteetako biztanlegoaren beherakada konfirmatu egiten dute udalak bildutako azken datu estatistikoek. Datuak ez dira ofizialak oraindik, baina udaletxean eskuratu dugun aurrerakin hau nahiko fidagarria da dagoneko. Laburbilduz, hau da Arrasatek 93an izan duen biztanle-mugimendua:

Emigrazioa	463
Hildakoak	171
Inmigrazioa	199
Jaiotzak	179
Aldea	-256

Emigrazioa da funtsezko faktorea, ikusten denez: astean 10 bat lagunek uzten dute herria, gutxi gorabehera. Aurreko urteetan, jaiotza eta heriotzen arteko desoreka izan da, ume gutxiago jaiotzen zelako, baina aurrean, aldiz, gehiago jaio dira, hil baino.

Guztira, beraz, 25.060 biztanle dauzka orain Arrasatek. 1975. urtetik (25.237) ez zen horren maila bajaran egon Arrasateko populazioa. Biztanle gehien izan zen mo-

mentua, aldiz, 1985. urtea izan zen (26.633). Orduetik, beheruntz joan da biztanlegoa. Hona azken urteetako eboluzioa:

1990	25.584
1991	25.598
1992	25.491
1993	25.316
1994	25.060

Datu hauek legezko biztanlegoari dagozkie; padroian izena emana dutenak zenbatzen dira. Izatez, Arrasaten zenbat jende bizi den errolda ofizialak markatzen du, eta bost urtetik bost urtera izaten da hori. Hala ere, azken neurketetan izatez biztanle gutxiago ageri izan dira Arrasaten, legez baino. Beraz, posible da gaur egunean 25.000 biztanle baino gutxiago izatea.

Beherakadaren joera aldatuko ote da? Udalak azterketa bat egin du erredaktatzen hasi den hirigintza Plan Orokorrerako, eta horretan zenbait hipotesi erabili dituzte. Hala ere, oraingoz ikuspegi baikorrari eusten diote udaletxean, eta 10 urte barru biztanlegoa oraingo neurrian egongo dela uste dute.

Mankomunitateko aurrekontuak

Deba Garaiko Mankomunitateak onartu gabe utzi zituen aurrekontuak, joan den astean Antzuolan egindako juntaren biltzarrean. Bilera horretan, aurrekontuen aurreproiektua aztertu zen, baina azkenean, pertsonalgastuen alorrean aldaketak ezartzea erabaki zen. Pertsonal gastuetan soldaten %3ko igoera zegoen kalkulaturik. Baina Juntaren biltzarrean, igoera izoztea erabaki zen, eta beraz, zuzendu egin behar dira aurrekontuak. Zuzenketa egin ondoren, hurrengo juntan onartuko dira aurrekontuak (Aretxabaletan otsail amaieran). Aurrerago, maiatzean, Euskal Autonomi Elkarte-ko funtzionarien konbentzioa, Arcepafe delakoa, negoziatzean baliteke soldaten izozketa edo igoera berriro ere berrikustea. Printzipioz, dena den, 550 milioi PTA ingurukoak izango dira aurrekontuok.

Uharkapeko etxe bakarra

Uharkapeko etxeen eraikuntzak impasee amaezin horretan segitzen du. Baina, bitartean, bertan eraiki ahal izan den etxebizitza bakarrean bizi izateko baimena eman du Udalak. Etxea erosi dute netarik batzuk izango duten azkenean beren etxebizitza berrira joateko aukera.

Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73


**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETETA

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



Aurrera segitzen dute San Juan elizako konponketa lanek.

San Andres auzorako parrokia berria eraikiko da

San Andres eta Uribarri auzoek parrokia-barruti berria osatuko dute, eta eliza berria egiteko asmoa ere badauka Arrasateko eliz-komunitateak. Egitasmo hau eta San Juan elizaren konponketa plana, ostiral honetan dira aurkeztekoak Arrasaten, Jose Maria Setien Donostiako gotzaiaren eta Jose Mari Astigarraga parrokoaren eskutik.

San Juan Bataiatzailearen elizaren berrikuntza lanak hasiak daude dagoeneko. Herriko Plazan, denen bistan geratu da elizaren egitura zaharra, portikoak kendu egin dituzte eta.

San Juan Bataiatzailearen Elizaren konponketaz gain, gotzaiak eta parrokoak

beste proiektu baten berri ere emango dute: San Andresko parrokia berria. Ez da eliza egitea bakarrik, eliz-instituzio berria sortzea baizik. San Andres eta Uribarri auzoetako parrokia berri horrek 9.000 biztanleko eremu bat hartuko du.

Parrokiak eliza ere edukiko du, eta hori eraikitzeko asmoa dago Asuntzionisten erai-kinean, San Viator Txiki ikastetxearen ondoan. Hala ere, Uribarriko bizilagunen batzuk ez datoz erabat ados parrokia proiektuarekin, baina eliz-komunitatearen iritziz, Uribarriko gaur egungo eliza eta abadetxeak auzoko baserriak atenditzeko baino ez du ematen.

Intsumisioari laguntza

Arrasaten ikasi eta lan egiten duen Ander Goñi intsumiso nafarrari lagundu zioten sei pertsona prozesatu ditu Bilboko epaitegi batek. Goñi 3. graduari zegoen Basauriko espetxean, eta gradu hori hautsi egin zuen gaez lotara ez itzultzean. Ekintza horretan laguntzeagatik sei pertsona auzipetu dituzte orain, artean CCOOko sindikalista bat, EHUKo irakasle bat, elizbarrutiko ordezkari bat eta frantziskotarren komunitateko hiru lagun.

Taxi lizentzia

11. zenbakiko autotaxiaren lizentzia eskatzeko lehiaketa zabalik dago. Eskeraek otsailaren 21a baino lehen aurkeztu behar dira Udalean eta hurrengo lanegunean irekiko dira.

Santa Ageda koroen errekaudazioa

Santa Agedan kantuan irten zuten abesbatzek 881.000 PTA jaso zituzten iaz, eta 660.000 PTA, joan den asteko aldirikarian genioen bezala.

GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

ORAIN LARUNBATETAN ERE BAI!!

Helduentzako ingelesezko ikastaro trinkoak

- MAILAK: Oinarrizkotik ertainera
- ORDUTEGIA: 9etatik 12etara
- IKASTAROAREN HASIERA: otsailak 4
- MATRIKULA zabalik urtarrilaren 31ra arte
- INFORMAZIO GEHIAGO jasotzeko dei egin:
79 01 32 - 79 65 54 tfoetara

AHIZKE - CIM Koop. E.
Araba Etorb., 4

20.500 ARRASATE



Zabor-bilketaren balantze ona egin du Mankomunitateak.

Gero eta hondakin gehiago birziklatzen dugu

Bizilagunek gero eta hondakin gehiago uzten dituzte birziklatzeko edukiontzietan. Hondakin bilketa eta birziklatzearen balantzea (93koa) egin du Deba Garaiko Mankomunitateak berriki, eta bertan ikusten denez, 650 tona paper eta kartoi bildu ziren iaz. Urte hasieran hileko 50 tona baino gutxiago bilzen ziren, baina azaro-abenduan gainditu egin ziren 60 tonak. Birziklatzeko joeraren gorakada adierazten du horrek.

Beirari dagokionez, 700 tona bildu izan dira eskualdean (Arrasaten 216 tona). Arrasateko hondakinen biltegi alternatiboan, bestetik, 1.544 tona hondakin bildu dira. Gehie-

nak hondar hutsak (923 tona), eta gero egurra (344 tona), txatarra (102 tona), plastikoa (96 tona) eta paper edo kartoiak (78 tona).

Mankomunitateak erabiltzen dituen zabor eta hondakin bilketaren beste bi instalazio, Akeiko erretegia eta Epeleko isurtegi kontrolatua dira. Akein, 38.514 tona zabor erre dira, eta horietarik % 42 izan dira Deba Garaikoa. Epeleko isurtegia iazko maiatzean inauguratu zen, gai ez toxikoetarakoa da, eta dagoeneko nahiko erabilera zabala izan du: 34.000 tona hondakin isuri dira bertara eta 13.500 metro kubiko bete dituzte horrela.

Uharkapeko auzian hitzarmena negoziatu dute

Uharkapeko arazo luze eta istilutsuak irtenbide posible bat aurki lezake laister. Izan ere, inplikaturako alde nagusiak, Construcciones Irgala Konstrukzioak (etxe eraikitzailea, alegia), Azatza Auzoko etxebizitza komunitatea (goian etxean dauzkatenak), eta Arrasateko udala arazoa *impasse*-tik ateratzeko hitzarmen bat negoziatzen aritu dira. Hitzarmena ostiral honetako udal plenoan da baieztatzekoa. 1990eko udan, mendi magala mugitu zenetik, aurrerapen gutxi egin da etxeen eraikuntzan.

Etxez-etxe laguntza

Ostiraleko plenoan tratatuko den beste gaietako bat etxez-etxe laguntza zerbitzuaren araudi berria da. Laguntza hau jasotzeko gero eta eskari gehiago jasotzen da udaletxean, eta aurrekontuak motz geratzen direnez, benetako premia dutenentzat egokitzeko araudi bat erredaktatu da.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Sekulakoak pasatu behar izaten dituzte ATBko kamarek. Joan zen larunbatean Meatzerrekan susto galanta hartu zuen

Virginia Urkiolak. Gorritik

Badirudi Arrasaten emakumeak maiteminduago daudela. Bergarako Amodiozko gutunen lehiaketara behintzat, Arrasateko sei neskak eta mutil bakar batek aurkeztu dituzte lanak. San Valentin egunean jakingo dugu Bergarara iritsi diren 69 gutunen artetik, irabazlea nor izango den.

basurde txiki bat jarri nahi omen zion buru gainean.

Eskerrak Virginia ez zela beldurtu eta kamarari gogor heutsi ziola!



Jose Mari Urkiola eta Garbiñe Lizundia, joan zen urteko azaroaren 20an ezkondu ziren. Ezkon bidaian Kanariasera joan ziren. Zorionak!

Animalia hori ez da txakurra, ezta ahuntza ere. Bigantxa txiki bat da. Itxura denez animalia handia ez zen arren, Meatzerrekako baserritarrek ańiketari egin behar izan zuten.



• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Monte taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

IZEN PROPIOAK



BBVak estatu guztian 10 Volkswagen Polo Coupé zozketu zituen, eta hauetako bat Arrasatera heldu da. **Pako Abarrategi,**

Erguineko Urza tabernakoari, horietako bat tokatu zaio. Urtarrilaren 15ean eman zioten berri ona. Urtea behintzat, ederto hasi du!

● **Laurane Zubia,** 23 urte arrasatearra, Donostiako Bagera elkarteak kaleratuko duen "Irutxulo" aldizkariko administrari-kudeatzailea izango da. Laurane enpresa zientzietan lizentziatua da, Donostian ikasi zuen.


● **Karmele Izarzelai,** 25 urte, Arrasateko euskara zerbitzuko administrari laguntzailea izango da aurrerantzean. Karmele arrasatearra da eta administrari teknikoa ikasketaz. Aurrez, Arrasate Presseko eta udaltzaingoko administrazioan lanean aritu izan da.

● **Karmele Korta,** 24 urteko arrasatearra, Antzuola eta Elgetako udaletako gizarte laguntzailea izango da aurrerantzean. Karmele gizarte laguntzailea da eta orain arte Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailean egon da lanean.



Oraingoan, Erguineko egoitzan egin zioten omenaldia **Joxe Manuel Arriolari.** Bost urtez bertako egoitzako idazkaria izan zelako jaso zuen omenaldia. Lehengo afaria egin zioten eta ondoren egoitzako lehen-dakariak oroigarria eman zion.

Bartzelonako Liceu antzoki ospetsuan, aste honetan erre den horretan, kantore mondrauetarrek ere eskaini izan dituzte euren kantaldiak. Parrokiako abesbatzako gizon talde batek, Orfeo Donostiarrekin eta Pamplonesarekin batera, Gustav Mahller-en 8. Sinfonia eskaini zuten, eta baita Verdiren Requiem-a ere. 1971-72an izan zen hori.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdia
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



Vanesa

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Otsaileko lau jardunaldi

Asteburuko jardunaldia, aipatzeko kontu handirik gabe igaro zen. Ez zen partidu-inpugnaziorik gertatu, aurreko asteburuan bezala, baina talde bati (Betrayerri) bi puntuko zigorra ezarri diote partidu bat arbitrazera ez joategatik.

Orain, otsaileko esprinta besterik ez da geratzen lehen itzulia amaitzeko,

lau jardunaldi. Sailkapenetako goikaldekoek erraz daukate (makina bat, aritmetika hutsez sailkatuta daude dagoeneko), eta behekaldean ere ardura gutxi: erdi-partekoak dira gehien saiatu beharko dutenak. Sailkatzen ez direnentzat, beraz, Zaldibar-ko aurtengo denboraldia amaitzear dago.



ARGÍ PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atatak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**

Erakusketa berria:
Kampatorpea, 2
(Parroquia ondoan)
ETORRI IKUSTERA!



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35



Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
SUM. UGARTE	15	15	0	0	101	22	30
TRIKITI	15	14	0	1	70	17	28
ARLUTZ	15	11	3	1	73	25	25
JEY JULIWER	15	10	3	2	62	27	23
ZOTZ	15	10	2	3	55	46	22
UGLYS TXINATO	15	9	2	4	65	45	20
ANBOTOSTE KT	15	8	3	4	40	26	19
SOKOAKOAK	15	9	1	5	64	48	19
BIZKORRAK AVE.T.	15	6	3	6	56	43	15
BERANGO SUKAL.	15	7	1	7	47	40	15
KOKKAS	15	5	2	8	39	44	12
EUSKAL INDARRA	15	5	1	9	66	70	11
IKATZ	15	4	2	9	46	75	10
AUF DEM KOFFER	15	4	1	10	28	54	9
RESAKAS	15	3	3	9	40	56	9
WHISKERIA LINDE	15	4	1	10	38	94	9
BAYERN LENITZ	15	4	0	11	33	68	8
FREGUEL GOL	15	2	3	10	34	54	7
ALLA KUIDAUS	15	3	0	12	26	86	6
ETXE MOBILIARIO	15	1	1	13	32	75	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	15	15	0	0	108	38	30
DANOK LAGUN	15	9	6	0	41	19	24
ZULOAK	15	11	2	2	56	29	24
LEINTZ GARAGAR.	15	10	2	3	64	27	22
ALPEN KRAUSSER	15	10	1	4	70	74	21
IRATI STS	15	8	4	3	58	31	20
BUKANAK	15	9	2	4	66	36	20
ARR. KIROLAK	15	10	0	5	56	39	20
TRONKOTEAK	15	8	2	5	46	47	18
BETRAYER	15	7	2	6	63	44	16
OJO AVISORE	15	5	3	7	64	61	13
EXCAV. LETE	15	4	5	6	39	44	13
NOTXINGAN FLO.	15	4	4	7	46	58	12
OOOLE	15	5	1	9	49	68	11
GANBELAS	15	5	0	10	43	53	10
DIEGO ANTONIO	15	3	1	11	38	57	7
KOPYPREST	15	3	1	11	41	71	7
FANCY BOIS	15	2	2	11	36	64	6
MONTERREY Z.BEL	15	2	1	12	37	90	5
ATXANTA KE TE...	15	0	1	14	24	95	1

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
NABARROS	15	12	1	2	61	26	25
FOSFOROS	15	12	1	2	75	22	25
LOS HEREDIA	15	11	1	3	51	21	23
MIKELOS	15	11	1	3	65	31	23
KAKAJAURI	15	9	4	2	57	28	22
ARR. KRISTALDEGIA	15	10	2	3	56	31	22
PEPELUS	15	7	2	6	57	38	16
MOTZ	15	7	1	7	63	42	15
LOS DALTON	15	6	2	7	51	54	14
HIREI	15	6	2	7	49	45	14
FOTO IMAGEN	15	5	3	7	42	50	13
KIRTEN TROPEL	15	5	3	7	31	42	13
ADELAIDA HAIZEA	15	5	3	7	36	45	13
TXOKO TABERNA	15	6	1	8	29	47	13
POTROSORRI	15	6	0	9	33	39	12
LEYA	15	5	1	9	44	76	11
MZK GANBELAS	15	4	2	9	39	52	10
SIBILIUS ROVER	15	4	0	11	22	50	8
BORROCKN ROLL	15	3	0	12	35	81	6
CORINTO TABERNA	15	1	0	14	30	106	2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ZULUS	15	12	3	0	116	38	27
POTROAK LORA.	15	12	2	1	73	33	26
TUTTIFRUTI	15	11	3	1	76	39	25
AC SURCOS	15	11	2	2	71	30	24
REVOLUTION TOCK	15	12	0	3	75	31	24
TOVARITX	15	11	2	2	55	35	24
CARBUROS	15	9	4	2	60	25	22
FRANCISCANERR	15	9	1	5	73	50	19
LASO ARREGI	15	8	1	6	53	48	17
NUEVO TABERNA	15	7	2	6	42	43	16
KRISKIBALDA	15	5	3	7	56	59	13
LOS DIMY	15	3	6	6	40	41	12
GURE LEKU	15	5	2	8	44	58	12
SOLANO 7 MARES	15	5	2	8	58	75	12
MACCABI DE LEV.	15	4	2	9	37	63	10
ILUNA TABERNA	15	3	1	11	30	91	7
BODISCA	15	2	2	11	29	76	6
EZKINAKO HONTZAK	15	1	0	14	27	92	2
KOAK LAIT	15	1	0	14	22	54	2
ELISABETH	15	0	0	15	29	85	0

ADI!!!



Lehen 20 bezeroen artean, auto bikain hau zozkatuko dugu

GARAJEAKSALGAI
Amaia antzokiaren ondoan, Ferixalekuko parkean

Ez aukera hau galdu!!
Prezio harrigarriak

Informazioa eta salmenta: Tfnoa: 79 19 96 ARRASATE



Hurrengo asteburu-rako partidu hauek gomendatuko ditugu: Fosforos-Los Heredia (hauen taldean dago lidergoagatik lehia biziena, A, B eta D taldeetan sailkapen-tako egoera argiago baitago), Irati STS-Zuloak, Alpen Krausser -Danok Lagun, eta Tuttifruti - Revolution Rock.

BELARRIRA

◆ **Bi puntuko zigorra.** Betrayer taldeari bi puntuko zigorra ezarri diote, arbitratzera ez azaltzeagatik (eurek zeukaten partidua baino ordubete lehenago zuten arbitratu beharra). Zigor honekin, 2. fasera sailkatze-ko oso aukera gutxiarekin geratu da talde hau. Iaz sailkatu ziren, eta aurren ere sailkapena lortzeko beza-lako taldea zuten, baina...

◆ **Berandu baina esponsorra.** Talde gehienek denboraldi hasieratik izaten duten babeslea. Beste batzuk tartean aurkitzen dute, eta horien artean, berandu baina fin, esponsor berriarekin azaltzen zaizkigu Los Heredia taldekoak. Dragoi bideo-produkzioak dira herediatarren babesle berriak.

◆ **Zuzenki sailkatuak.** Honako talde hauek matematikoki sailkatuta daude bigarren faserako. Trikiti (A taldea), Argi Ibili (B taldea), Nabarros eta Fosforos (C taldea), eta Zulus, Lorategi eta Tuttifruti (D taldea).

EMAITZAK

A TALDEA

- Resakas 1 - Suministros Ugarte 4
- Jey Juliwer 5 - Uglyx Txinato 3
- Fraguel Gol 4 - Zotz 6
- Etxe Mobiliario 1 - Trikiti 3
- Berango Sukaldeak 3 - Sokoakoak 5
- Auf dem Koffer 3 - Koxkas 2
- Anbotoste KT 5 - Ikatz 0
- Alla Kuidaus 2 - Euskal Indarra 10
- Arlutz 4 - Bizkorak Avenida Taberna 2
- Bayern Lenitz 10 - Whiskeria Linde 1

C TALDEA

- Mikelos 8 - MZK Ganbelas 3
- Los Daltob 3 - Pepelus 1
- Kirten Tropel 3 - Sibilius Rover 1
- Hirei 1 - Nabarros 2
- Fosforos 4 - Motz 2
- Txoko Taberna 0 - Los Heredia 3
- Arrasate Kristaldegia 5 - Leya 1
- Adelaida Haizea 1 - Kakajauri 3
- Corinto Taberna 3 - Foto Imagen 5
- Borrokn Roll 2 - Potrosorri 5

B TALDEA

- Leintz Garagardotegia 4 - Notxingan Flo. 3
- Irati STS 2 - Ooole 1
- Fancy Bois 0 - Zuloak 2
- Diego Antonio 4 - Ojo Avisore 6
- Bukanak 12 - Monterrey Zubi Bel 2
- Atxanta ke te merece 1 - Kopyprest 2
- Argi Ibili 3 - Ganbelas 2
- Alpen Krausser 2 - Excavaciones Lete 1
- Arrasate Kirolak 1 - Danok Lagun 4
- Betrayer 3 - Tronkoteak 6

D TALDEA

- Maccabi de Levantar 1 - Revolution Rock 11
- Laso Arregi 1 - Tovarixtx 3
- Kriskibalda 6 - Zulus 12
- Franciscanerr 5 - Solano 7 Mares 3
- Elisabeth 1 - Potroak Lorategi 6
- Bodisca 2 - Los Dimy 2
- AC Surcos 4 - Gure Leku 0
- Nuevo Taberna 7 - Ezkiñako Hontzak 4
- Carbueros 1 - Tuttifruti 3



Udalaitz, S. A.



ADI!
2. Eskuko
autoak



- Kadett 1.6 SS-3679-Z
- Citröen XM BI-8600-BD
- Golf 1.6 BI-3003-BB
- Seat Marbella M-3148-KY

Musakola auzoa, z/g
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25

Deba Garaia Inmobiliaria



**Inmueble eta finantza
agentzia**

Maalako Arrabala, 31 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 02

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 5

Zaldibar

- 08.50 AC Surcos - Ezkiñako Hontzak
- 10.00 Atxanta ke te merece - Ganbelas
- 11.00 Revolution Rock - Tuttifrutio
- 12.00 Auf dem Koffer - lkatz
- 13.00 Nuevo Taberna - carbuos
- 14.00 Txoko Taberna - Leya
- 15.00 Kriskibalda - Solano 7 Mares
- 16.00 Fosforos - Los Heredia
- 17.00 Etxe Mobiliario - Sokoakoak
- 18.00 Alpen Krausser - Danok Lagun
- 19.00 Diego Antonio - Monterrey Zubi Bel

Iturripe A

- 08.50 Irati STS - Zuloak
- 10.00 Resakas - Uglys Txinato
- 11.00 Fancy Bois - Ojo Avisore
- 12.00 Jey Juliwer - Zotz
- 13.00 Arrasate Kristaldegia - Kakajauri
- 15.00 Fraguel Gol - Trikiti
- 16.00 Bukanak - Kopyprest
- 17.00 Berango Sukaldeak - Koxkas
- 18.00 Argi Ibili - Excavaciones Lete

Iturripe B

- 15.00 Anbotoste KT - Euskal Indarra
- 16.00 Arrasate Kirolak - Betraye
- 17.00 Alla Kuidaus - Bizkorrak Avenida Taberna
- 18.00 Corinto Taberna - Borrockn Roll

Igandea 6

Zaldibar

- 08.50 Elisabeth - Los Dimy
- 10.00 Adelaida - Foto Imagen
- 11.00 MZK Ganbelas - Potrosorri
- 12.00 Leintz Garagardotegia - Ooole
- 13.00 Notxingan Florest - Tronkoteak

Iturripe A

- 08.50 Suministros Ugarte - Whiskeria Linde
- 10.00 Mikelos - Pepelus
- 11.00 Arlutz - Bayern Lenitz
- 12.00 Los Dalton - Sibilius Rover
- 13.00 Laso Arregi - Zulus

Iturripe B

- 08.50 Kirten Tropel - Nabarros
- 10.00 Maccabi de Levantar - Tovarixtx
- 11.00 Hirei - Motz
- 12.00 Franciscanerr - Potroak Lorategi
- 13.00 Iluna Taberna - Gure Leku



Bigarren faseko sistema erabakita dago

Zaldibarko antolakuntzak erabakia dauka dagoeneko zein izango den bigarren faseko joko sistema. Eta ez dute burua gehiegi astindu: iazko berbera erabiltzea pentsatu dute, egozia izan zelakoan.

Hasieratik genekien bezala, zortzi ekipu sailkatuko dira talde bakoitzean. Ondoren, zozketa egin behar da, baina ez dira talde guztien izenak zaku berera botako. Zerrendaburuen sistema erabiliko dira: talde bakoitzeko lehen lauak zaku batera joango direnak, 2. geratzen diren lauak 2. zakura, 3. geratzen diren lauak 3.era, 4. geratzen diren lauak 4. zakura, eta gainerako hamaseiak (tal-

de bakoitzeko 5. postutik 8.era) bosgarren zakura.

Beraz, zortzi ekipoko lau talde osatuko dira: lehen zakuetatik ekipu bana joango da talde bakoitzera, eta 5. taldetik lau ekipu. Ligillatxoa jokatuko dute taldeek, eta ondoren txapelkunak semifinaletara igaroko dira. Zerrendaburuen sistema ezartzearen arrazoia sinplea da: lehen fase luze-ko txapelkunak elkarren artean goizegi lehiatu behar ez izatea.

Bigarren faseko zozketa egiteko, lehen fasea amaitzean, otsailaren 28an, edo bestela martxoko lehen astean, sailkatutako talde guztien artean bilera egingo da.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

● Alfonso Sanz Autoen kultura oinezkoen kontra

Alfonso Sanz geografo madrildarrak Interbenzio Gune Partehartzaileen prozesuan parte hartu du, Maltzaga-Urbina proiektuaren inguruan eraturako taldeetako batek gonbidatuta (trenbide zaharra txirridulari eta oinezkoentzat berreskuratzearen aldeko taldeak, Arrasaten eraturakoak). Geografo eta hirigintza teknikaria da Sanz, garraiobideen alorrean espezializatua.


— Zer azaldu duzu IGP-etan?

— Motorerik gabeko garraiobideen inguruko hausnarketa eskaini dut. Garraiobideen garapenak eta planteamendu orokorrak eragin dituen kalteak azaldu ditut, automobilen hegemonia oinezko eta bizikleten kaltetan izan dela. Azpiegiturak automobilentzat egin izan dira (errepide, autobia eta autopistak), eta horrek gainerakoak baztertu egin ditu, ez lurrak ezabatuz eta okupatuz bakarrik, gainerako eragozpen piloak sortuz ere bai: kutsadura, zarrata eta paisaiaren degradazioa. Zirkulu bizioso bihurtu da guztia, oinezko eta txirridularientzako aukera gero eta

murrizagoekin. Maila urbanon eta eskualdekoan, ondare historikoko trama oso bat ari da desagertzen: kaminoak, baso-bideak, gurdibideak. Guzti horri balioa aitortuko zaio noizbait, eta zenbat eta lehenago hobeto, galera konponezina izaten baita sarritan. Hori onartu egingo du gizarteak, oinez edo bizikletaz ibiltzea garraiobide arrunta direla konturatzen denean, etorkizun handikoa eta oso egokia. Euforia automobilistikoa igarotakoan, beste hainbat herrialdetan bezala, garraiobide onuragarriagoi begiratuko diegu, eta garraiobide horien azpiegiturak egokitu egin beharko ditugu. Kontura gaitezen gaurko galtzaileak laster erreibindikatu egingo ditugula.

— Baina egia ote da automobilaren kultura gainditzearen dagoena?

— Oraindik ez. Baina halako oreka batera iristen ari gara. Beste herrialde batzuetan, Europan, Iparraldekoan bereziki, eta Estatu Batuetan, automobila, hegemonia galtzeke, posizio umilagoan geratzen ari da. Kasu deigarriena trenbide zaharren berreskurapena, mundu osoan orokortzen ari den joera da,



Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan garatu dena bereziki. Ez da hain aspaldiko joera: Estatu Batuetan lehen berreskurapena 1981ean izan zen, eta ordutik 93ra, 500 proiektu eta 6.500 milia baino gehiago egin dira.

— Erakundeek diotenez, ardatz azkarren premia ezinbestekoa da.

— Nik ez ditut premiazkotzat jotzen. Sistemaren katea koska bat estuago jartzeko beharrezkoak izango dira beharbada, baina nora goaz horrela? Lurralde desberdinak azpiegiturekin lotzeko beharra aipatzen da. Grazia egiten dit horrek, gure produktuak kanpoan saltzeko balio duela esaten dutelako, baina egiten dutena zera da, lurraldeko puntu indartsuekiko depen-

dentzia areagotzea, hau da, kanpoko produktuak sartzearraztu egiten dute. Gainera, loturak badaude dagoeneko, zera neurtu behar dugu, ea abiadura hau edo beste hori komeni zaigun. Azpiegitura horien falta oztopoa ere esaten dute. Oztopo handiagoa dauka Erresuma Batuak, eta hor dago; orain tunela ere badute, baina trenentzat bakarrik...

— Maltzaga-Urbina proiektua zer iruditzen zaizu?

— Beste marra bat mapan. Izango dituen eragin sozial eta naturalak justifikagaitzak iruditzen zaizkit. Beti egongo da beste autobia bat egiteko, beti dago guk baino autobia gehiago duen norbait. Gainera, Euskal Herria ez da inondik inora azpiegiturretan gutxi hornituta dagoen lurraldea, baina beti dago gehiago nahi duen norbait. Zein da autobia honen justifikazioa? Ez ote dago arrazoizko beste aukerarik lurralde honetarako? Hori da nire iritzia.

● “Euskal Herria ez da inondik inora azpiegituraz gutxi hornituta dagoen lurraldea”



IGPetako eztabaidetako une bat, Aita Menni zentruko geletako batean.

Maltzaga-Urbinako eztabaidaguneak IGPak, barrutik

Luis Fernandez

Interbentzio Gune Partehartzaileak Arrasateko Aita Menni ospitalean ari dira biltzen azken asteetan zehar. Orain arte bilakatutakoaren balantze positiboa egin dute bai herritarrek, iritzi desberdinak aurkeztu dituzten txostengileek eta antolatzaileek.

Datorren astean 6. Gunea bilduko da, eta horrekin amaituko da Deba Garaiko herritarren kontsulta. Ondoren,

Deba Beheko eta Donostia eta Gasteizko bizilagunen txanda izango da, 14 Gune bildu arte. Ezaguna den bezala, zozketaz hautatutako 25 bizilaguneko taldeak dira Guneak (IGP edo NIP siglekin ere ezagunak dira). Maltzaga-Urbina autopistaren inguruko iritzi desberdinak entzun, aztertu, kontrastatu eta horren inguruan erabakitzea dute helburu.

Urtarrilean bildutako Guneen emaitza positibotzat jo dute bertan parte hartu duten alde desberdinek. Zozketaz partehartzea tokatu zaien he-

A

ministrazioaren aurkezpenak ez omen dira onegiak izan, eta Diputazioena Jaurlaritzarena baino askoz ere hobea izan da.

rritarren batzuekin kontsultatu du Arrasate Pressek eta, oro har, denak daude prozedurarekin pozik. Informazioa jasotzeko modu egokia iruditu zaie, eta eztabaidarako aukera ona izan dutela ere bai.

Hiru egunetan iritziak entzuteko aukera dute partehartzaileek, Prospektiker gabinetek egindako sarrera orokor eta neutral baten ostean. Txostenen txandan, 40 minutuko azalpena izaten da, eta 20 bat minutu galde-erantzunetarako. Tartean, Gizarteaz-ek kontratatutako aditu neutralak daude: Sarririkoko fakultateko ekonomista batzuk, ingurugiroaz dakiten madrildar batzuk, injineru bat (hasierako injineru taldeari betoa ezarri zion Eguzkik), eta UNEDeko irakasle bat (ondare historikoaz dakiena). Adituen jarrera positibotzat jo dute guk kontsultatuko partehartzaileek. Laugarren egunean, bidaia egiten dute bailaran zehar, eta interesguneak eta atal istilutsuenak hurbiletik ezagutzen dituzte.

TESTAK ERABAKITZEKO

Bosgarrena, erabaki eguna da. Hiru auzi nagusi erabaki behar dituzte partehartzaileek: ardatza behar den ala ez; zein ardatz mota izan behar den, eta trazaketa. Hala ere, Guneak ez du hiru galdera horientzako erantzun bakunik ematen. Ostera, galdetegi sakon bat erantzuten dute, test eran, eta sekretuan.

Testeko erantzunak aukeartzeko, partehartzaile bakoi-tzak aparailu bat dauka, eta gustoko duen erantzunaren botoia sakatzen du (gutxi gorabehera Jon Anduezak ETBn aurkeztu duen Hor Dago Koxka saioan bezala). Erantzun guztiak ordenagailu batera doaz, eta han zenbatzen dira, inork emaitza globala jakin barik. Test guztiak amaitzean, bi diskete ateratzen dira ordenagailutik, Gunearen ebaluazioarekin: bat Gizar-

teaz-eko soziologoentzat izaten da, eta bestea Guneko ordezkari batentzat. IGP guztiak bildu eta gero, maiatzean, ordezkari guztiak elkartuko dituzte, eta bakoitzak bere disketea duenez, emaitza globalen ebaluazioa zuzena izan dela konprobatu ahal izango dute.

TXOSTEN KONTRAJARRIAK

Txostenei dagokienez, denetik dago. Oro har, administrazioaren aurkezpenak ez omen dira onegiak izan, eta Diputazioena Jaurlaritzarena baino askoz ere hobea izan da. Administrazioak ez du mapa zehatzik erakusten, trazaketa konkretuak beharrean, lerro nagusiak azaltzen ditu. Arabako Foru Aldundiak zati arabarrari buruzko detaile zehatzagoak eskaini zituen, dena den.

Autopistaren aldekoen artean, merkatal ganbarak, eta Maltzaga-Urbina aldeko



Giro ona egon da Guneetan. Argazkian, partehartzaileak bazkaltzen.

plataforma azaltzen dira. Deba Beheko Mankomunitatearen Debegesa enpresak autopista defenditzen du halaber, eta Bilbo-Behobiaren kontzesioa amaitu arren, peajea luzatuko ez dena zalan-tzan jartzen dute. MCCko txostenean, perspektiba ekonomiko ilunak marrazten dira, eta horregatik ardatz berria

egitea eskatzen dute (peajerik gabe hobeto litzatekeela gehitzen dute), oraingo bidea konpontzeaz gain. EA eta EUEk autobien ideia defenditzen dute.

Autopistaren aurkakoen artean, Kattagorri, Eki eta Eguzki talde ekologistak daude. Azken hauek, Bailararentzat Durango-Beasain arda-

tza garatzea askoz hobe litzatekeela diote. Ideia berari eusten dio Herri Batasunak, Arrasateko alkateak aurkezten duen txostenean.

Plano neutralago batean ageri dira Arrasateko oinezkoentzako bidearen aldeko taldea, edo Kapirixo elkar-tea, Bailarako ondare historikoaren azterketa oso bat egin duena. Oñati eta Antzuolako beste txosten batzuek puntu konkretu batzuen konponketa eskatzen dute.

Txosten kontrajarriak dauden bezala, partehartzaileen artean ere alde baterako edo besterako joerak izan dira. Baina gehienek aldetik, txosten desberdinetako iritziak kritikatzeko eta kontrastatzeko gogoia igeri izan da. Jendeari ahotsa ematen zaionean, isilik geratzen ez den seinale dira IGPak. Ikusteko dagoena, ahots horri jaramonik egingo ote zaion, Guneen emaitza kontsultibo bano ez den neurrian.


Europako Komunitatearen paperak

Maltzaga-Urbina proiektuaren gainean zabalduko azken berriak Europako Komunitatearen diru-laguntza posibleen ingurukoak izan dira. Deba Bailarako Autobidea (Debasa) enpresako iturriek aditzera eman dutenez, ardatz azkarraren finantziarioaren parte bat (% 50 edo) Europako Komunitateak jarriko luke, baina autopista egiteko bakarrik, ez bestela.

Egiazki, Komunitatearen ebazpenak ez du esaten autopista izan behar duenik. Europako Kontseiluak 93ko urriaren 29an hartu zuen Maltzaga-Urbina aipatzen den ebazpena, "errepide sare transeuroparra-


ren sorrerari buruzkoa", izenburuan dioenez (Interbask izeneko buletinean argitaratu izan da Euskal Herrian). Ebazpenaren 1. artikulua dioenez, sarea "autopistaz eta lehen mailako errepidez osatzen da". Autobiak dira *lehen mailako errepide* horiek. 2. artikuluan dioenez, interes berezia dauka Komunitateak "oraindik egin gabe dauden atalak buka daitezten, ardatz transfronterizo eta intrakomunitarioen kasuan bereziki".

Ebazpena sare transeuropar hori marrazten duen mapa batekin osatzen da, eta bertan Euskal Herriko bi proiektu azaltzen dira: Maltzaga-Urbina da



bata, eta Iruñea-Aldude (Nafarroa Behera) bestea, nahiz eta azken honek ikerketa sakonagoa behar duela zehazten den. Estatu espainiarreko beste hainbat proiektu ere azaltzen dira, batzuk autobia moduan proiektatuta daudenak; esate baterako, Extremadurako autobidea.

Ebazpenak ez du zehazten zein proiekturi zein dirulaguntza eskainiko zaion. Finantz-laguntzak eskaini aurretik, hori bai, "proiektuen koste eta abantailak neurtu beharko dira, proiektuon abantaila ekonomiko, sozial eta ingurugiroarekikoak kontuan hartuz", dio Bruselan sinatutako erabakiak.



Jose Luis Ezkurra, Mondrako lehendakaria, ATBk grabatutako bideoa ikusten.

Nesken Mondra sekula baino hobeto ari da jokatzeko

Bakarrik geratu da emakumezkoen Mondra bere ligako lehen postuan, asteburuan irabazi eta Gure Txokoa talde lesakarrak galdu ondoren. Duela zazpi urte nesken futbol taldea sortu zenetik, orain arteko joko maila altuenera iritsi dira Arrasateko futbolariak. Iazko denboraldian Kopa irabazi ondoren, aurten aukera handiak dituzte Liga territoriala irabazteko. Aurtengo ligako lehen itzulian emaitza irregular samarrak izan zituzten, baina bigarren itzulian primeran dabilta. Hasierako kezka ekonomikoak ere gainditu dituzte nolabait, eta orain esponsorra daukate: Belun taberna.

Txapeldun izan ezker,

igotzeko aukera izango dute, baina horrek ez du esan nahi aukera aprobeztatuko dutenik. Alde batek, urrutiago joan behar izanez gero, gastuak igo egingo lirake, eta bestetik, puntako mailan jokatzeko taldea edukitzea zaila da.

Taldea orain dagoen momentu onera iristean sekretua hiru urtez talde sendo eta finkoa eratu izana da, Jesus Mari Barrutia-bengoa 'Txiu' entrenatzailearen aginduetara. 22 urte ingurukoak dira taldeko nukleo "gogorra" eta elkarrekin aritu izan dira gora eta gora. Duela bi denboraldi, Gipuzkoako Koparen ateetan geratu ziren, eta iaz irabazi egin zuten Kopa

(ondoren AUKEA saria jaso zuten horregatik). Baina talde batu hau desegiteko arriskua ere hor dago: izan ere, emakumezkoen futbola ez dago gizonen bezain egituratuta, eta nahikoa da bizpahiru neska lanera edo ikastera kanpora joatea, taldea indarrak gabe uzteko. Hori gertatu zaie, adibidez, aurreko urteetan indartsu samar zebiltzan Alde Zaharra edo Anaitasuna taldeei.

Mondrari ere gauza bera gerta dakiok, joko maila jaitea; baina hori bai, taldearen jarraipena ziurtatuta dago: 12-13 urteko neska talde bat entrenatzen ari da dagoeneko. Nagusiak "jubilatzen" badira, txanda hartzeko prest daude behekoak.

FUTBOLA

ATBko zinta eta zigorrak

ATBtik eroandako bideo-zinta froga gisa onartu ez arren, Mondra futbol taldeak egindako alegazioak zigorra biguntzeko balio izan zuen joan den astean. Aurreko jardunaldian Mondra-Hernani partidu amaieran arbitroagatik protesta egiteagatik, hiru jokalarik zigorra ikus zezaketen. Azkenean, zigorra beharrean, txartel horiaren pareko santzioa ezarri zien federazioko diziplina batzordeak. Ondorioz, txartel-akumulazioagatik, Carrillo eta Egañak ezin izan zuten jokatu Ondarroan.

Merituzko garaipena

Ondarroako partidu horri dagokionez (Aurrera 0 - Mondra 2), Gil arbitro bizkaitarrak bost jokalarikaleratu zituen, Aurrerako lau eta Mondrako bat. Lehen kanporatua Moreno arrasatearra izan zen, bi txartel horirekin 13. minutuan (arbitroak ez zien jokalariei tutik esaten uzten). Hala ere, taldea gutxituta egon arren, meritu handiz eutsi zion Mondrak eta aurreratzea lortu zuten; gero iritsi ziren ondarrutarren kaleratzeak. Balantze gisa, oso emaitza positiboa izan da Mondrarentzat, kanpoan jokatzeko tokatu zaion azkenekoetan bezala.

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

PENALTIAK

● **Arrasatek Barakaldon amaituko du 2. mailako lehen fasea, 2. faserako sailkapena egina dauka. Bi talde daude, 2. mailan, eta bakoitzeko 5 lehenak pasatzen dira 2. fasera. Kontua da, elkarren arteko emaitzak zenbatzen direla, eta dagoeneko puntu jakin batzuekin hasiko direla jokatzeko 2. fasean.**


● **Sistema hau dela eta, arreta beste partidu batean dute arrasatearrek asteburuan: DF Araba - Caja Vital. Bi talde hauek 2. fasera igarotzeko egingo dute borroka, baina Arrasateri DF Arabak irabaztea komeni zaio, horiei irabazi ziotelako ligan, eta sailkatzen badira 2. fasea lidergoan hasiko du Arrasatek.**

Instalazioak egiteko laguntza eskaera Diputazioari

Kirol-instalazioetarako laguntza eskatuz Diputazio-ira idazki bat bidaltzea erabaki du udalak aste honetako Gobernu Batzordean. Gipuzkoako Foru Aldundiak 1994tik 97rako kirol-instalazioak egiteko foru-plana kaleratu berri du, eta orain da plan horretatik laguntzak eskatzeko epea.

Arrasatetik, hiru proiektu ezagunetarako eskatuko da laguntza.

Batetik, aspalditik geldi dagoen Mojategiko proiekturako. Mojategin, Musakolako kiroldegiaren ondoan, atletismo pista bat eta rugby zelai bat egiteko proiektua dago erredaktatuta aspalditik. Lurrak espropiazio bidez erosita daude, proiektu teknikoa ere egin zen bere



Mojategiko terreno hauetan atletismo pistak egon beharko luke garaian, baina Aldundiaren finantziazioa da falta dena. Beste kirol proiektu bat Musakolako kiroldegaren konponketa da. Dagoeneko berrikuntzetako batzuk egin da daude, baina horiek finantziatzeko ere eskatuko da laguntza (egiteke daudenak

ahaztu barik). Hirugarren proiektua Ferixalekuko pilotalekuarena da. Egitasmo hau (nahiko kritikatu berez udal-oposizioaren aldetik) geldi dago Uharkapeko arazo ezagunagatik, mendi-magala mugitu zenetik ezin izan delako obra handirik egin.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Aurrera 0 - Mondra 2
Emakumezkoak: Mondra 6 - Intxaurdi 0
2. regionala: Mondra 1 - Lagun Onak 3
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 7 - Elgoibar 1
Jub., 2. maila: Arrasate 6 - Bergara 3
Kadeteak, 1. maila: Anaitasuna 3 - Arrasate 1
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 1 - Antzuola 2
Haurrak: Arrasate 7 - Aitzgorri 1
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Hernani. Atxabalpe, igan., 16.15, klubaren egun erdi.

Saskibaloia

2. maila: Arrasate 96 - Ordizia 81
Jub. mutilak: Arrasate A 83 - Andraitz 91
Jub. neskek: Patterncam 41 - Juven 51
Kad., mutilak: Loramendi Kirolak 80 - Laskorain 40

Arrasate 59 - Akelarre 65

Hurrengoak:

2. maila: Paules - Arrasate. Barakaldo, lar., 18.30.
Sub-23: Arrasate - Aralar. Musakola, igan., 11.30.

Rugby

Euskal liga, 2. m.: Bizkaia 5 - Arrasate 20
Jubenilak: Arrasate 20 - Gaztedi 0
Neskak: Durango 120 - Arrasate 0
Hurrengoak:
Jubenilak: Gaztedi - Arrasate. Gasteiz, lar., 16.00.

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Aloña Mendi 19 - Arrasate Kirolak 20

2. eskualdekoa: Zestoa 16 - Arrasate Kirolak 28

Jubenilak: Bergara 18 - Arrasate Kirolak 16

Hurrengoak:

1. eskualdekoa: Arrasate - La Salle Legazpia. Iturripe, lar., 16.30.
2. eskualdekoa: Arrasate - Bidebieta. Musakola, lar., 18.30.

Pilota

Euskal liga:
Jubenil, banaka: Arrasate 18 - Errioxa 12
Hoherenak 18 - Arrasate 11
Senior, banaka: Zaramaga 18 - Arrasate 14
Soraluze 18 - Arrasate 10
Junior, binaka: Gernika 22 - Arrasate 14
Usurbil 19 - Arrasate 22
Hurrengoak: Euskal Ligako partiduak Iturripen, lar., 11.00.

TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

Txitxinpe

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Muxibar azpikue (San Andres)

Mundrauetik Atxabaltara bidien Mundraueko azkenengo etxie da Muxibar.

Gaur egun fabrika eta bidiek inguruen izen arren denpora baten erreka, zelai eta solo artien euen.

67. urterarte bertako bizi-lagunek izendakuek topetako, kalera jo biher izen dou. Urte hartararte han bizi izen zien Pako Bengoa Berezibar bertako semie ta Pepita Agirre Larzanguren bere andrie, Gesalibarko Aurragakue.

Pakon aitte, Joxe Martin Bengoa Arregi bertan jaixue zan ta ama, Justa Berezibar Altuna Mietzerrekako Montzonen.

1956xen Pako Zerrajeran hasi zan lanien eta bertan jarraitu eben jubilau arteiño. Aurretik basarrixe zan bere bizibidie. Landara saltzailiek zien eta Bitorixara fan bihe



euenetan Elorrixotik hara oien Fullaondon autobusien faten zien. Autobus honek rekorrido honetan plazara jenerue saltzen oiezenak bakarrik erueten zittuen, astien behin, eguenetan.

Aurretik lan bardiñe eitte-

ko ostera, astuaz fan biher izeten euen; haruzkotan oinez, honuzkotan asto gaiñien.


Uren kanalizaziñuek oso aldatute dauko errekiek jarraitetan eben bidie.

Ondotxo akordetan da ze samurre zan bertako ur gar-

bixetan sarboeskallu, kangrejo, aingira, amorrain eta loinak harrapetie, nahiz da gaur egun bertan holako arrastorik be egon ez.

Boliñeteko presan ikesi eben igeri eitten Pakok.

KARMELE ZUAZUBIZKAR



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

Z E R N A H I A G O ?

Lourdes Azkoaga**Bastida Akademiako
zuzendaria**

- Lepoko zapiak erabiltzeko ohiturarik? Bai, oso gustoko ditut.
- Zenbat eraztun dituzu eskuetan? Bi bakarrik, urrezkoak.
- Badakizu ingelesez hitzegiten? Ez, euskeraz eta erderaz hitzegiten dut bakarrik.
- Zein da zorionsua izateko formula? Daukazu-narekin konforme egotea.
- Zer datorkizu burura "Bosnia" hitza entzutean? Pena izugarria, injustizia.
- Egiten duzu zerbait laguntzeko? Bai, akademian bi bosnio daude dohainik ikasten.
- Ze ikasketa egiten dituzte? Informatika, mekanografia eta erdera.
- Etxean zein hizkuntzatan hitzegiten duzue? Euskeraz.
- Zer egiten duzu lanetik etxera heldu bezain laster? Umeak jaso eta afaria prestatu.
- Errefrau bat? Ez naiz batere errefrauzalea.
- Non gustatuko litzaizuke pisu bat eukitzea? Frantziako Landetan.
- Biziorik? Erretzea, 12 zigarro erretzen ditut egunero.
- Zein tabako erretzen duzu? "Ducados".
- Zein generotako pelikulak dituzu gustoko? Amodiozkoak, erromantikoak.
- Zerk kezkatzen zaitu momentuan? Lan egoera kaxkarra.
- Zenbat pultsazio egiten dituzu minutuko? 300.
- Elkarteren batetako bazkidea bazara? Bai, AEDkoa.
- Zer afaltzen duzu? Okela edo arraina eta fruta.
- Zer falta zaio Arrasateri? Hondartza.
- Edari bat? Kafea.
- Noiz da zure urtebetetzea? Apirilaren 10ean.
- Zure hobbiak? Irakurri eta pasiuak eman, ibili.

BERTSOAK**Omenaldia**

Omenaldia, lendabizitiki eman banuen ere ontzat, nere barrenak maiz galde egin dit zer dala eta hori niretzat? zer dela eta Euskalerrriak izan bear nau ni aintzat; omenaldia gogoratzean biotza eroritzen zat.

Iragargita zegoen eran itez eta idatzita, urtarrilaren ogetairuan Donostian genduz zita; jaialdi ura bizi ondoren ala nago irizita: zorra ugari badaukatela Arrasatetik asita.

JOXE MANUEL ARRIOLA



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

David Zapirain Karrika

XVI. mendeko Arrasate arakatzen


Urtero udalak ematen duen Jose Letona beka eskuratu du 26 urteko pasaiar honek. Geografia eta Historian litzentziatua da. Davidek, XVI. mendeko Arrasateri buruzko lana egin behar du.

— Zein prozesu jarraitzen duzu lana osatzeko?

— Oraindik ez dut guztiz finkatu jarraitu behar dudana prozesua, baina badakit zein izango den abiapuntua: Artxiboko liburu bat da lan honetako abiapuntua, XVI. mendekoa; liburu honetan 1521. urtetik hasita 1570era Arrasaten egon diren zinegotziak, alkateak eta antzeko karguetako jendea agertzen da. Guztiak aztertu ondoren, garrantzitsuenak aukeratuko ditugu eta izen horiek beste artxibategi batetara aurkituko ditugu. Nire ikerketa, XVI. mendean Arrasateko udaletxearen funtzionamenduari buruzkoa izango da.

— Zer moduzko artxibategia du Arrasatek?

— Tira, oso ondo txukunduta dago eta dokumentuak oso ondo babestuak daude, baina egia esan, ez da XVI. mendeko agiri asko agertzen. Garai horretako



datu gehiago lortzeko, Diputazioko artxibora jo behar da.

— Zer aurki daiteke artxiboko hauetan arakatzeko gero?

— Gehien bat, pleitoak eta epaiketak. Egin behar dugun lanerako, beharrezkoak dira datu horiek.

— Bestalde, harritu egin zintuen bekaren eskurapenak?

— Harritu? Beno, horrelako bekak eskuratzekoak beti harritzen zaitu, baina horretarako aurkeztu naiz eta beti daukat esperantzaren bat. Gainera, beka honen gaia asko gustatu zitzaidan, oso interesgarria iruditu zitzaidan eta aurkeztea pentsatu nuen. Era honetako ikerketak, nire lana dira, eta nire lana, nik neuk bilatu behar izaten dut. Oso gustora nago.

— Esperientziarik baduzu horrelako lanetan?

— Bai, antzeko beste batzuk ere egin izan ditut, eta egia esan, oso gustora egiten dut, asko gustatzen zait historian arakatzea. Horretaz gain, noski, ordaindu egiten didate, beraz, oso pozik nago.

— Zuk aurkeztutako proiektuak zer zuen berezirik aukeratua izateko?

— Beno, hori udaletxekoei galdetu beharko diezu, nik ez ditut beste proiektuak ikusi eta ezin ditut konparatu. Dena den, mende horretako jauntxo eta zinegotzietan zertxobait sakonkiago arakatzea proposatzen genuen, pertsona hauen artean egiten zituzten trikimailuak aztertu nahi ditugu eta.

— Aurkitu duzu trikimailuren bat?

— Horretan nabil, azpijokuren bat aurkitu nahiean. Uste dut, gainera, bat aurkitu dudala: zinegotziak eta antzeko karguak aukeratzeko, hautagaien izenak paper batean idatzi eta lapiko batean sartzen zituzten. Norbaitek eskua sartu, eta zorteak erabakitzen zuen nor izango zen alkate edo zinegotzi. Kuriosoena zera da: Beti ateratzen ziren pertsona berberak.

Otsailaren 12an, Play Back Jaialdia

Lanak, ikasketek edo azterketek deprimitu egiten zaituztela? Ez da Arrasaten gaitz hauetarako terapia hoberik: Otsailaren 12an, Play Back Jaialdia. Aurreko urteetan Musakolako polikiroldegian ospatu bazen ere, aurten Amaia Antzokia berriztuta dagoenez, bertan ospatuko da. Aurreko urteetako prebisiok ikusirik, eta Amaian jende guztia sartuko ez dela eta. Play Back jaialdia bi sesiotan egitea erabaki dute antolatzaileek: 7etan bata eta 10.30etan bestea. Aurten ere, sorpresaz beterik datozkigu herriko pertsonaia ezagunenak. Argi ibili sarrerekin!

Gaztetxea kontzertuz blai


Musika gogorra gustoko baduzu, Arrasateko Gaztetxeak talde asko izango ditu bisitari datorren asteburu honetan. Ostiralean 21.00etan, Ondarroako bi talde: "Orgasmic Toothpicks", ingelesez kantatzen duen taldea, eta "Dut", Fermin Muguruzaren ustez, Euskal Herrian etorkizun handia duen taldea. Larunbatean berriz, Gasteizko lau talde izango dira Gaztetxean. "La nave pirata" izeneko pabeloian entsaiatzen dute, Gasteizko taldeak biltzen diren pabeloian hain zuzen. Kontzertua 8etan hasiko da eta 12etarako, bukatu egingo da.



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

LABURRAK

Ivo Pogorelich: Estreinu mundiala Arrasaten

Ondo irakurri duzu: Ivo Pogorelich pianujole kroaziarra gure artera etorriko da berriz ere otsailaren 13an obra bat Arrasaten mundialki estreinatzeko. "Cuadros de una exposición" da obra berriaren izenburua eta ohore bat da guretzat horren ospe handiko pianujoleak gure herriari halako mese-dea egitea. Amaia Antzokian izango da estreinua, arratsaldeko 7etan.

Aretxabaletako bainuetxeei buruzko liburua

Aretxabaletako udalaren laguntzaz, Jose Maria Urkiak Aretxabaletako bainuetxeei buruzko liburua argitaratu du. Aitor Antxia Leturia eta Fernando Arieta Gonzalez-Tablas arduratu dira dokumentazioaren bilketaz; guztira, 3.000 ale argitaratu dira. Aurten, 150 urte betetzen dira bainuetxeak sortu zirenetik. Aretxabaletak bi bainuetxe izan zituen XIX. mendean: "Ibarra" bata eta "Otalora" bestea. Ibarra izenekoa, 1982. urtean hondamendi egoeran zegoela eta, 1987an erauzi egin zen. Otalora bainuetxea zegoen leku berean, gaur egun monja konbentua dago.



Arrasateko musika ikasle izandakoek osatzen dute taldea.

Arrasateko kamara musika talde berria

Ezin uka daiteke, tradizio musikala duten herrien artean, Arrasate izango dela horietako garrantzitsuenetako bat. Arrasate Musikalitik aparte, bada Arrasateko iharduera musikalean interesa jartzen duen bestelako pertsonarik, horien artean, Goikobalu abesbatzako zuzendaria, Luis Ignacio Ruiz de Alegria.

TXIKITATIKO ILUSIO BAT

Luis Ignacio Ruiz de Alegriaren buruan, aspalditik zebilen halako talde bat sortzeko ideia; txikitatik izan duen ilusioa izan da. Arrasaten Goikobalu abesbatzarekin zuzendaritza lanetan hasi zenean, azkar konturatu zen herrian zegoen ohitura, ini-

ziatiba eta kapazitate musikala handia zela eta hori aprobetxatu beharra zegoela. Herriko musiko guztiak batzen dituen ardatza Arrasate Musikal bada, Luis Ignaciok, Arrasaten musika jotzea nahi baina non jo ez zuen jende asko zegoela ikusi zuenean, guztiak batzea eta "Arrasateko Kamara-Musikako Taldea" sortzea posible izango zela ikusi zuen. Ideia hori gauzatzea 1993ko ekainean hasi zen, Luis Ignaciok talde hau behingoz sortzeko erabakia hartu zuenean. Aspalditik ezagutzen zuen jendea-ri dei egin eta ideia proposatu zien. Guztiak batu eta "Arrasateko Kamara Musikako Taldea" jaio zen. Dena den, Luis Ignacio Ruiz de Alegria

ez da orain talde honetako zuzendaria eta taldea, zuzendari finkorik gabe aurkitzen da.

Kamarako musika talde honetan, kordazko instrumentuei dagokienez, bost biolinek, bost biolak, bost txelok eta bost kontrabajok osatzen dute. Haizezkoetan berriz, bi flautak, bi oboek, fagot batek eta klabe batek. Dena den, musika obra batzuetan, partiturak hala eskatzen duenean, tronpa bat edo bi ere erabiltzen dira.

Kamara Musikako Taldearen aurre-estreinua Urretxun izan zen 1993ko abenduaren 29an, estreinu ofizialak berriz, arrakasta handia lortu zuen urtarrilaren 2an Arrasateko parrokiaren.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS

PUBLIZITATEA



77 08 15



Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



1947ko ekainaren 6an, Santa Agedo "Salud y alegría" banda.

M

ondrauetar askok izango du Santa Agedako bandaren entzutea edo ezaguera. Gesalibar auzoko jaiak ditugunez, aukera ezin hobea banda horren erretratua orrialde honetara ekartzeko. Musika banda

hori Santa Agedako gaixoetxeko gaixoei eta auzoko gazteek osatzen zuten, eta izen bitxia zuen: "**Salud y Alegría**". 40 urte baino gehiago da desagertu zela ere.

Banda horrek bazuen zuzendaria ere; zuzendari lanetarako, bertakoei solfeoa erakusteko eta bertan organista lanetan ibiltzeko kontraturik zegoen **Jose Antonio Eguia** balmasedarra. Auzoan bertan bizi ei zen, gaixoetxearen alboko etxe baten. Eguia baino lehen, or-

kestraren sortzaile izan zena, **On Julio Velasco Prieto**. Musikari ospetsu eta handia hori ere.

Zutik daudenak ezkerretik hasita, **Eusebio Uribe-txebarria, Julio Martinez, Landa, Patri Orobengoa, Joxe Barrutia** (egun horretan zuzendariaren ordezkolanak egin zituen), **Karmelo Heriz, Dioni Agirre, Luciano**, gaixoetxe bat, izenik jakiterik lortu ez duguna, eta **Eugenio Zabarte**.

Jarrita, ezkerretik hasita,

Roman Abarrategi, Luis Mendarozketa, Rafael Revuelta, Juanito Arizmendi, Martin Arana eta **Hilario Llanos**.

Erretratua 1947ko ekainaren 6an ateratakoak da. Corpus egun hartan, goizeko 6etan hasi ziren diana jotzen, "quinto levanta, tira de la manta" eginez. Eguerdiko 12.30etan kontzertua ematen zuten, gaixoetxean bertan. Horrelako kontzertuak urtean sei edo zazpi bider izaten ei ziren.



Mondeo

MUGARRI

Mondeo





Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.


Epelde
Argazkidenda

Argazkizale, laster Portaloian aurkituko gaituzu

*Esperientziak eman digun
kalidadearekin*



Etxeko aberia txikien konponketa ikastaroa



Entxufeak, Sarrailak, Pertsianak...e.a.

EMALEA: Angel Inda

NON: AEDko lokaletan

NOIZ: Asteartero, otsailaren 8an hasi eta
apirila bitartean

ANTOLATZAILEAK: AEDko "EKIN"




• ESAERA ZAHARRA •

“Esperientzia da gure hutsegiteei ematen diegun izena”.

OSCAR WILDE

• JEROGLIFIKOA •



ESAMOLDEA
Argi...

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
		10			11	
12	13		14			15
16		17				
18				19		
20						

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. “Zurdo de Mondragon”en izena. 8. Itsusi. 9. Eguzkiaren jainko egiptiarra. 10. Nolabait. 12. Musika nota. 14. Igerian egiteko estiloa. 16. Adoratzearen egintza. 18. Talka. 19. Nasa. 20. (Ald.) Amainakeria.

Bertikalak 1. Osatu. 2. Lehena eta azkena. 3. (Ald.) Fleming, “007” sortu zuen. 4. Seilua. 5. Nolabait. 6. Umore. 7. Joan aditzaren erroa. 11. Istilua. 13. Gizon izena. 15. “Andoline”ren bokalak. 17. (Ald.) Izaera

• HOROSKOPOA •

Aries Zure tristura hori osasunaren makaltasunaren lekuko da.

Taurus Lagun bat ezagutuko duzu.

Gemini Dituzun ideiak oso originalak dira, baina ondorio txarren bat ekar diezazukete.

Cancer Sentimentu aldetik oso fidela bazara ere, sexu aldetik ez hainbeste.

Leo Urteen poderioz hezurak gogortzen hasi zaizkizu.

Virgo Gehiago irakurtzea komeni zaizu eguneko albisteetaz enteratzeko.

Libra Bildurrezko pelikula gehiegi ikusi duzulako ari zara burutik trastornatzen.

Scorpio Stressatuta bizi zara. Har ezazu deskantsua, bestela errebentatu egingo duzu.

Sagitaris Badakizu gehiegi erretzea txarra dena.

Capricorn Nahiz eta maitasun kontuetan desastre bat zaren, animatu! Beste zenbait gauzatan genioa zara!

Aquarius Erabaki bat hartu behar duzu, bata edo bestea, baina azkar!

Piscis Ispilu aurrean horrenbeste denbora egon ezkeru, gutxien espero duzunean apurto egingo zaizu.

ZAILDU
EZAIGUZU

J. LARRAÑAGA OPTIKAN
ERRAZTUKO DIZUGU


2.850 pta.



“DISEINU ESCLUSIBO ETA KALITATE BIKAINETZKO BETAURREKOEN BILA NABIL”
MULTIOPTICASen Sara eta Berto eustura eksklusibok

“GARANTIA OSOA ESKATZEN DUT”
MULTIOPTICASen garantia txarriak EUROPAko 3000 optiketan balio ditu.

“ETA PREZIO ONA, JAKINA”
2.850 pta. bakarrik.



ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

ADELAIDA SILVARREN GOMENDIOA



Noizean behin ibilaldi bat egitea gustatzen zaion horietako da Adelaida, eta berari asko gustatu zitzaion bat gomendatu nahi digu. Baztan bailara bisitatzea. "Arrasatetik ordu t'erdira dago eta ikusteko leku politak dauzka: Bertzigo Jaurerria eta bertako parke botanikoa, Sugarra-murdiko kobazuloak eta Otxondo inguru, esaterako". Hemengo paisaien aldean polita dela iruditzen zaio, eta leku egokia joan-etorria egin, edo agroturismoa bezalako zerbitzuak aprobeztatzuz egun batzuk egiteko.

PROGRAMAZIOA



6 Igandea

20.00etan
Astebete errep.
20.30etan
Mondragol.

7 Astelehena

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Astebete errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
"Ben-Hur"

8 Asteartea

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport errep.
14.05etan
"Ben-Hur" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan.
22.00etan
Dokumentala: "Zer dira glaziarrak eta sumendiak?"

9 Asteazkena

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
ATBketan errep.
14.05etan
Dokumentala errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan
22.00etan
Gaueko filma: "Sherlock Holmes"



10 Osteguna

13.30etan
Berriak
13.35etan
Pareak Jokuan errep.
14.05etan
"Sherlock Holmes" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Andoni Zubizarreta.
22.00etan
Antzerkia: "Luma Zelestialak"

11 Ostirala

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka errep.
14.05etan
"Luma Zelestialak" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren eguna: "Herensugea eta har-tza?"

KOMIKIA



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

SOLUZIOAK

...eta garbi.
JEROGILIFIKOA
Ipo.
11. Lazka. 13. Odon. 15. Aote. 17.
4. Tinbra. 5. Inora. 6. Grazia. 7. Oa.
Bertikalak 1. Sendatu. 2. Az. 3. Jan.
Amanin.
Adorazio. 18. Tope. 19. Kal. 20.
9. Ra. 10. Inoia. 12. Do. 14. Braza. 16.
Hortzontalak 1. Santiago. 8. Ezain.
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- **Garaje salgai.** Jose Luis Iñarran, 20. Tfnoa: 79 36 79.
- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaeuz deitu. Luis.
- **Errioxako Calahorran,** 75m²ko atiko ederra salgai. Eguzki-begia, jantzita, goteleduna eta egoera ezinhobean. 15m²ko ganbara eta trastelekua ere baditu. Herriaren erdigunean dago. Prezioa: 4.500.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Torremolinosen** apartamentu-estudioa salgai. Haundia, herriaren erdialdean, jantzia, 2 pisua, igogailu, igerilekua, salariuma, atezaina...Prezioa: 3.250.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Bi oheko logela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza salgai Uribe Auzoan.** 90 m². 2 gela, 2 bainu, garajea, trastelekua eta ganbara ditu. Hobekuntza ugari egindakoa da. Tfnoa: 79 37 99. Mikel. 8etatik 3etara
- **Etxebizitza behar da alokatzeko.** Tfnoak: 79 23 80 - 79 86 75. Iker.
- **Etxebizitza salgai Magdalena** kalean. 75 m²takoa. Sukaldea, bainu, 3 logela, jangela eta etzalekua. Guztiz kanpoaldekoa. Tfnoa: 79 34 54.
- **Hutsik duzun etxebizitza txiki hori** neuretzako modukoa da. Alokaturako didazu? Tfnoa: 79 01 66. Gaeuz.

Lana

- **Klase partikularrak ematen ditut.** UBI eta EFPra-ino. Dei egin 79 84 75 tfnora goizez eta 79 02 76ra arratsalde. Judith.
- **Lokal komertzial, bulego, etxeetako garbiketako** egiteko prest. Tfnoa: 77 09 56. Maribi.
- **OHO zein ingelesezko klase partikularrak** ematen ditut. Tfnoa: 79 45 60. Sonia.
- **Frantsesezko klaseak** hartuko nituzke. Dei egin 79 69 80 tfnora.
- **Kimikan lizentziatuak** OHO, BBB eta UBiko matematika, fisika eta Kimikakazko klaseak emango lioituzke. Tfnoa: 79 42 97. Belen.
- **Edozein motatako lanak** garbira pasatzen dizut ordenagailuz. Dei egin 79 77 59 tfnora eta Fernandez galdetu.
- **Neska bat asteburuetan** edozein lan egiteko prest. Arrasaten edo inguruan. Tfnoa: 77 06 82.
- **Frantsesezko klaseak** hartuko nituzke. Tfnoa: 79 29 80.
- **Pertsona bat behar dut** BTiko 1. mailako elektrozitate klase partikularrak emateko. Tfnoa: 71 50 72 (goizetik).
- **Espereziadun pertsonak orduka egingo luke** lan etxe edo atariak garbitzen Tfnoa: 79 99 17. Mari Carmen.
- **OHOko klaseak ematen dira,** euskaraz edo erderaz. Tfnoa: 79 42 91 (Itxaro).
- **OHOko klaseak ematen dira** taldeka nahiz banaka. dei egin 2.30etatik aurrera. Tfnoa: 79 90 46. Rakel.

Salerosketak

- **Kutxa-izozkailu berria salgai.** 30.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Yamaha XJ 650 salgai.** Dei egin 77 11 04 tfnora 18.00etatik 22.00etara eta Santiz galdetu.
- **Trabesiako botak saltzen ditut.** 42 Zenbakikoak eta Koflach markakoak. Oso egoera onean daude. Tfnoa: 79 39 88.
- **100 litroko FAGOR termoa** salgai. Ia berria. Prezio ona. Tfnoa: 79 07 73.
- **Jeepa saltzen dut.** Egoera eta prezioa onean. Tfnoa: 79 81 25.
- **Eski batzuk saldu nahi ditut.** Dynastar tablak. Look fijazioak eta bastoiak. Tfnoa: 79 17 96.
- **Volkswagen "escarabajo" salgai.** Horia. SS-M. Tfnoa: 79 81 25.

Denetarik

- **Gasteiztik Arrasatera egunero,** arratsaldeko hiruetan bueltatzeko kotxe baten bila nabil. Tfnoa: 79 37 67. Silvia.
- **Erloju txuria, urre kolorekoa,** urrezko kataia, lauburua eta gurutzea O letraz eta urrezko eratzuna galdu zaizkit (dena erlojuarekin batez) igerilekuko aldagela haundian. Tfnoa: 79 63 64.
- **Betaurrekoak galdu zitzaizkidan** orain dela 2 aste, erdialdean. Tfnoa: 79 47 45.
- **Zilarrezko boligrafoa** galdu nuen urtarrilaren 8a aldera San Andresen. Boligrafoak VICENTE A. izena darama grabatua. Aurkitu ezker, 79 94 01 tfnora deitu. (Vicente Alonso).

Aste Gazte

Euskal Dantza

• 10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaroa, Lore Gaztearen eskutik. Otsailetik Sanjuanetara. Ostegunetan, 6.30etatik 7.30etara. Matrikula: 1.000 PTA. Plaza mugatuak. Ins-kripzioak: Gazte Bulegoan.

Lanpostuak

• Eusko Irrati Telebistak Donostiako Euskadi Gaztean lan egiteko, musika animatzaileko 4 lanpostu betetzeko deia egin du. Epea:

otsailak 7.

• Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako lanpostuetarako epea: otsailak 13.

Bekak

• Lanbide Heziketa ikasketak burutzeko beka, minusbalia fisikoa duten 17-40 urte bitartekoei zuzendua. Epea: martxoak 23.

• Atzerrian ikerketak nahiz lizentziatu osteko ikasketak burutzeko beka. Gaiak: Ekonomia, Zuzenbi-

dea, Natur Zientziak. Epea: apirilak 15.

Ikastaroak

• Oñatiko goi-mailako Ostalaritza Eskolak aurtengo seihilabeterako ikastaro programa aurkeztu du. Arloak: a) kudeaketa eta zerbitzuak, eta b) sukaldaritza.

Lehiaketak

• "Antonio Machado" narrazio laburren XVIII. saria. Gaia: trenbideak. Gaztelaraz, katalanez, euskaraz edota galegoz. Epea: otsailak 28.

"Legeak gehiegi zigortzen ditu intsumisoak, zigorraren eta defenditzen denaren artean alde handia baitago"

HERIBERTO ASENCIO, SEVILLAKO ENTZUTEGIKO MAGISTRATUA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ARRASATE PRESSSEN

ZUR.E

publizitate

KOLORETAN

a,eme...interiores

Garibai, 9 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 03
FAX: 79 14 89

etxeko ekipamendu oso

a,eme... interiores

